

2. zenbakia
D.L. / L.G.: D-01469-2021

2022/02

Hostoak



Behingoz etxera

III. KONGRESUA SORTU

- 4/ III. KONGRESUARI
BEGIRADA
- 11/ HERRIGAIA PONENTZIA
5 GAKO
- 15/ SORTUKO EMAKUMEON
KONPROMISO FEMINISTA
- 17/ EPPKREN AGURRA
SORTUREN KONGRESUARI
- 18/ CRÓNICA DE ENERO.
MILES DE PERSONAS POR
Y CON LOS PRESOS
- 22/ POLITIKA
GIZAGABEA
- 25/ ARNASBERRITZEN.
PLAZA HUTSA
- 29/ **FREE THEM ALL**
PRESOEN EGOERA ETA
ESPETXETAKO HELBIDEAK
- 33/ **KARTZELAKOAK,
DESERRIKOAK**
- 36/ ONGI-ETORRIEN
HARIRA
- 38/ OSASUNGINTZA
PUBLIKOA
- 41/ **AZKEN
HILABETEETAKOAK**
- 50/ TORTURAREN EGIA
ARGITARA
- 54/ **EPAITEGIETAKO
BERRI**

Argitzailea

SORTU

Erredakzioa

Maialen Arteaga

Oier Narbaiza

Gotzon Elizburu

Egoitza

Zuatzu enpresa parkea.

Easo eraikina 4, behea.

20018 Donostia

Diseinua eta maketazioa

Lubaki Grafik Faktory

Argazkiak

Foku

Lege gordailua/Deposito legal

L.G.: D-01469-2021

Jabego lizentzia

CC - BY - SA

Eskubideen alde

Berri onez soilik osatzen den berripaperik ez da inon izango, eta Hostoak aldizkariaren kasuan ere ezin esan berri guztiak onak direnik. Nahi bai! Nahi genuke dena erraza izatea, dena bide laua balitz, nekerik gabe, imajinatzen ditugun eta behar ditugun ortzimugetara iristeko. Baina gure herrian aurrerapausoak trabatzeko eta zauriak lehenean iraunarazteko helburuz jokatzeko dute Estatuaren indar eta aginte guneek eta botere judizialak.

Euskal preso politikoei zigorrak ahalik gehien luzatzeko eta espetxealdi ahalik eta latzena biziartzeko beren legedia bihurritu eta nahierara interpretatu izan du espainiar Auzitegi Nazionalak. Hamarkadetan zehar salbuespeneko legedia ezarri diete euskal herritar atxilotuei, eta horretan jarraitzen dute, zitalkeria handienarekin. Egunetik egunera traba berriak asmatuz, beren legedia are gehiago bihurrituz.

Horren adibide da azken hilabeteotan Unai Fano, Jon Crespo eta Iñigo Gutierrez euskal preso politikoei egin dietena, 3^o gradua ezarri eta kaleratu ondoren, denbora baten buruan atzera 2^o gradua ezarri eta berriro espetxeratuz.

Mendekua dute helburu, eta euskal preso politikoei eta beren senideei ahalik gehien sufriarazteko irizpidearekin hartzen dituzte erabakiak. Ez da gauza berria, eta ez du zer ikusirik justiziarekin. Bestean sufrimenduekin elikatzen den Estatuaren eta botere judizialaren jokabidea baizik ez da; ondo sentitzeko besteen sufrimendua behar duen aginte politiko eta judizialaren jokabide gizagabe eta mendekatia da.

Baina haien helburu zikoitzek ez dituzte hosto hauek zimelduko; euskal preso politikoen eskubideen urraketak salatzen jarraituko dugu, ez salatzeagatik soilik, eskubide horiek errespetatu dituzaten baizik.



III. Kongresuari begirada

Sortuk bere aktibo politiko eta militantea jarriko du askapen-prozesuaren zerbitzura



Herrigaia ponentziak eraldaketa sozialaren eta independentziaren alde borrokan jarraitze-ko tresna berrituak eskainiko dizkigu aurrerantzean. Orrialde hauetan, Kongresu prozesuaren erreposoa eskainiko dizkizuegu alde batetik, eta etorkizunerako gako nagusiak laburbiltzen saiatuko gara bestetik.

Berez, nahi baino Kongresu prozesu luzeagoa izan dugu, aurreikuspen guztiak urtebete atzeratu baitzituen pandemiak. Kongresu prozesuari ekiteko erabakia 2020ko otsailaren 8an hartu zuen Nazio Batzarrak. Han ezarri zen Kongresu Prozesu honen abiapuntua eta filosofia. “Kongresu honetan ezkerreko independentismoa indartzeko erabaki egokiak hartu beharko ditugu, beraz. Honek, ariketa kolektiboa behar du. Prozesu formalaz gain, gogoeta pausatu bat egiteko tartea behar dugu, elkarri entzun eta eztabaidak zorrotzasunez egiteko. Gogoeta estrategikoan eta elkarren entzuke-

tan murgilduko gara, indartsuago bilakatzeko”, 2020ko otsailean onartutako ebazpenaren arabera.

Behetik gorako prozesu bat marraztu zuen, beraz, Sortuk. Egoera pandemikora egokituta, Zohardiaren balantzeari heldu zion, modu dinamikoan. Hutsuneak atzemateko eta egin beharreko doikuntzak aztertze-ko, militantzia guztiarekin ariketa kolektibo bat egin behar genuen. Horixe zen 2020ko otsaileko Nazio Batzarrak emandako mandatua.

Aparatuetan eta ardura ezberdinetan aritutako kide askoren arabera, Zohardiak ezarritako ibilbidea betetzen ari baginen ere, haren garapena gauzatzeko denbora gehiago behar genuen. Bide-orri hark fase berrirako egokitzapena behar zuela aurreikusten zen. Izan ere, aurreko urteetan gatazkaren zikloa modu ordenatuan ixteko ahaleginetan buru-belarri aritu ginen bitartean, herri pultsioari ezin genion nahiko genukeen arreta eskaini.

Ilegalizazio fase batetik abiatuta, indar eta arrakasta handia lortu du independentismoak. Orain, organizatiboki, garai berrira doitu beharra dugu

ELKARRIZKETAK 500 MILITANTEEKIN

Intuizio horiek guztiak aintzat hartuta, balantzea erredaktatu aurretik, herrietan eta auzoetan militanteek Sorturen egoera eta ibilbidea nola ikusten zuten jakin behar genuen. Horrexegatik, 500 militantereenganajo genuen. Iritzia ahalik eta kualitatiboena izan zedin, lagina presatzerako orduan, adin, genero eta herrialde guztietako militanteak aukeratu genituen, guztiekin hitz egiteko banan-bana, patxadaz. Luze eta zabal mintzatu ginen haiekin egoera politikoaz, Euskal Herriaz, gatazka-ren ondorioen konponbidez, EH Bai eta EH Bilduz, Sorturen paperaz, jendartean nagusi diren balioez, militantziaz, kaleaz, herri mugimenduez, herri bakoitzaren egoeraz...

Buruz buruko elkarrizketa haiek abiapuntu aproposa izan ziren balantzea osatzeko. Hainbat iritzi, aholku, kritika eta ekarpen jasozituen Sorturen zuzendaritzak elkarrizketa haietan. Denak modu eraikitzailean. Kasu batzuetan kontrajarriak ere baziren jasotako iritziak, gure mugimendu politikoa-ren aniztasunaren erakusle.

BALANTZEA

Landutako balantzearen arabera, *“azken urteotako balantzea positiboda oro har, nondik gentozen eta non gauden kontuan hartuta. Estrategia aldaketatik hona mugimendu gisa egiten ari gareen trantsizio luze eta korapilatsuan urrats garrantzitsuak egin ditugu azken 4-5 urteotan. Batetik, ETAREN zikloa itxi dugu eta euskal preso, iheslari eta deportatu politikoak etxera ekartzeko bidean urrats esanguratsuak egiten hasi gara. Bestetik, ziklo politiko berrirako ezinbestekoak diren tresnen eraikuntzan aurreratzen ari gara”*. Halaxe dio balantzeak.

Hamar urtean, ilegalizazioen fasea gainditu dugun bitartean, beste eragile politiko batzuk, zoritxarrez, egoera politiko berriari oztopoak jartzen aritu dira, agertoki politiko berri bat lehenetsi beharrean, baina hala ere independentismoa eragile garrantzitsua da egun.

Orain dela bost urte Zohardia ponentzian finkatutako norabidean aurrera egin badugu ere, *“urrun gauderaindik bertan zehaztu genituen helburu eta eginkizunetatik”*, aitortzen du balantzeak.

“Bestalde, ezin dugu bistatik galdu zein testuinguruan murgilduak gauden: espainiar estatuaren krisia, Europan ematen ari diren burujabetza prozesuak, kapitalismoa azkartzen ari den zibilizazio-krisia, pandemiaren ondorio sozial eta ekonomikoak... Euskal Herriak erronka kolosalak ditu eta horrek anbizioarekin eta erantzukizunarekin jokatzera eraman behar gaitu”, dio.

Lurralde agendari dagokionean, bi lorpen esanguratsu aipatzen dira: bata, Nafarroako Erregimenari pitzadura irekitzea eta, bestea, Ipar Euskal Herriaren instituzionalizazioa Herri Elkargoaren sorrerarekin. EAEn, berriz, estatus politiko berrirako oinarriaren aferari dagokionez, geldiune bat bizi izan dugula aitortzen da: *“Onartu behar da bataila politiko garrantzitsua joan zitzaigula. Ez ginen gai izan PNVren jokaldiari aurre egiteko, ez maila instituzionalean, ezta aktibazio sozialaren ikuspegitik ere”*.

“Azken urteotan, Euskal Herriak pul-tsu mobilizatzailerak erakutsi du sindikalgintzan, feminismoan eta borroka sozial ugartan (pentsionisten mobilizazio dinamika iraunkorra, Zaldibar...). Mugimendu hauek guztiek indar eraldatzaile handia izan dezakete, eta politika publikoen gaineko eztabaidan eragiten ari dira” dagoeneko. Mugimendu horiek balioren borrokan eta sistema errotik aldatzeko jokatzeko duten papera goraiatzen du balantzeak, eta feminismoa eragiten ari den ekarpena nabarmentzen du bereziki.

Balantzea egitean hutsune eta kezka batzuk ere atzeman dira. Besteak beste, nazio taupadaren ahultzea sumatzen da hainbat aldagaitan, paradoxikoki subiranismoa indartzen ari den aldi berean. Horrez gain, lurralde administratibo bakoitzaren estatus politiko-juridikoa aldatzeko egin behar den eztabaida eta prozesurik ez dago oraindik. Horrez gain, mugimendu eraldatzaileen artikulazioari dagokionean, *“indarren sakabanaketa handia dago eta,*

askotan, dinamika bakoitza modu isolatuan agertzen da”.

Ezker abertzalea trantsizio fase batean dago. Munduan bakarra den eredu da gurea, arrakastaz aurrera egiten ari dena: ilegalizazio fase batetik abiatuta, indar eta arrakasta handia lortu du independentismoak. Orain, organizatiboki, garai berrira doitu beharra dugu. “Balantzea ere prozesu-ikuspegi horrekin egin beharra dago. Zohardian esaten genuen bezalaxe, Sorturen eta, oro har, ezker abertzale berriaren eraikuntza urte luzetako prozesu gisa irudikatu eta ezaugarritu beharra dago, orduan hartutako erabaki batzuk oraindik ere urteetako garapena eskatuko

dutelako. Lorpenen artean dago EH Bildu eta EH Bai eraikitzeari berebiziko ekarpena egin diogula eta Sortu berriaren arkitektura eraiki dugula. Horrez gain, Sortun jardun feministari ekiteko apustuari heldu zaiola nabarmentzen da balantzean.

Horrenbestez, *“jauzi bat eman behar dugu, beraz, Euskal Herriak behar duen susperraldia bultzatu eta burujabetzarako bidea azkartzeko. Herri bulkada indartsu bat artikulatu behar dugu. Horretarako, Ezker abertzalearen komunitate historikoaren aktibazioa izango da gako nagusietako bat. Nork egingo du bestela, azken hamarkadetan herri honen biziraupena bermatu duen tradizio politikoak ez bada?”.*

Argazkia. Oiarzun.
Nazio Topaketa.



Balantzea Atarrabian onartu genuen, ekainaren 19ko Nazio Batzarrean %76,3aren babesarekin. Batzar hartan onartu ziren baita ere prozesuaren araudia %77,9aren babesarekin eta Berme Batzordea %80,8aren babesarekin. Horrez gain, Kongresuaren arautegia eta berme batzordea onartu ziren batzar hartan. Militantziaren parte bat Atarrabiara gerturatu bazen ere, beste parte batek etxetik jarraitu zuen batzarra, telematikoki, pandemiak eragindako arriskuak saihestearren.

KONPROMISO FEMINISTA

Kongresu prozesu hau baliatu dugu urrats berriak egiteko Sortun praktika feminista garatzeko. Lau urte lehenago Plan Feminista osatzeko eta martxan jartzeko konpromisoa hartu genuen. Hala egin dugu, baina norabide horretan Kongresu hau baliatu nahi dugu urrats kualitatiboak emateko eta emakumeon parte hartzea biderkatzeko maila guz-

tietan. Azken batean, Sortu feministatzea da helburua. Eta helburu honi garrantzi berezia eman diogu kongresu guztian.

NAZIO TOPAKETAK

Behin balantzea osatuta, ponentzia erredaktatzea behar zen. Arestian esan dugun moduan, kongresua bera ariketa kolektibo gisa planteatu zenez, ponentziaren oinarriak ere modu kolektiboan finkatzeko erabakia hartu zen. Hartara, udan bi Nazio Topaketa egin genituen, Durangon lehenengoa eta Oiartzunen bigarrena.

Lehenago belaunaldiak eta militante gazteak. Barnealdekoak eta kostaldekoak. Hiriguneetakoak eta herri txikietakokoak. Anitza izan ziren Durangon eta Oiartzungo nazio topaketak. Guztion artean egin genuen egoeraren analisia. Guztion artean jardun genuen eztabaidan, gogotan, kongresu prozesu honetako tesi nagusien oinarriak finkatzeko.

500 bat militantek parte hartu zuten bi saioetan. Jarraian Durangoko saioak eman zuena kontatuko dizuegu. Covidaren mehatxuagatik kanpoan egin genuen plenarioa, eta eguzkiak gupidarik gabe jo gintuen, batez ere eguerdian. Lan-taldeek itzaletan aurkitu zuten babeslekua gogoetarekin patxadaz jarduteko, eskerrak. Eta eskerrak, jendea presatuta etorri zen ekarpenak egiteko: krema, bisera eta urik ez zen falta izan.

Lehenik, ponentzia politikoaren tesi nagusien eskema-zirriborroa landu genuen. David Pla Sortuko kideak eskaini zituen zenbait azalpen, lan-taldeetan aztertu aurretik. Anbizioz jarduteko beharra nabarmendu zuen, bizitzen ari garen testuinguru honetan arrisku beste aukera baitago. Sortuk, beraz, lan egin beharko du baldintzak sortzeko, gaur posible ez dena bihar posible izan dadin eta egungo indar-harremanak aldatu daitezzen, orain dela 60 urte gertatu zen moduan. Horrez gain, egungo indar-harremana konkista han-





Argazkia. Nazio Topaketak.

Errolda Parte hartzeleko eskubidea dutenak	Parte hartzaileak	Emandako botoa	Herrigaia	Lurrari Lotuz	Zuri
7936	4556	4164	2948	919	297
		%52,5	%71*	%22*	%7*

* Emandako botoaren gaineko ehunekoak dira

Araba	328	209	82	37
		%64	%25	%11
Bizkaia	1337	902	341	94
		%67	%26	%7
Gipuzkoa	1565	1254	220	91
		%80	%14	%6
Ipar EH	63	50	8	5
		%79	%13	%8
Nafarroa	862	527	266	69
		%61	%31	%8
Diaspora	9	6	2	1
		%67	%22	%11



dienean aldera ekarri behar dugu. Besteak beste, erabakitzekeo esku-bidearen aldeko gehiengo soziala operatibizatu behar dugu, burujabetza estatus bat lortze aldera

Ondoren, ponentzia organizati-boaren tesi nagusien eskema-zirriborroa jorratu genuen. Arkaitz Rodriguez idazkari nagusiak zenbait zertzelada eman zituen. Sorturen egituraren beharrezko egokitzapenak egin eta indartzea izan behar du lehenatasuna, batez ere maila loka-lean, EH Bildu berriaren eraikuntzari bultzada erabakigarria eman ondoren. Hortaz, planteatutako erronka politikoei erantzuteko, ezker abertzalearen oinarri militantea saretzea izango da Sorturen misioa, askapen prozesurako aktibo izan dadin. Horrek, azken batean, antolatzaileen erakunde baterantz jotzea eskatzen du.

Arratsaldean, jendea lan-taldeetan banatu zen, tailerretan parte hartze-ko. Hauexetan: zaintza krisia, arris-

kua ala aukera; militantzia eredu; naziogintza gakoak I, elkarrekin hobe; hezkuntza, komunitate eta komunitatearentzat hezi; hiriguneak, jauzi baterako oinarria; dinamika aktibista propioa; oroimena eta askapen estrategia; kolapso ekologikoa. Tailerrak bi txandatan egin ziren, hartara militante bakoitzak berak hautatutako bina tailerretan parte hartzeko aukera izan zuen.

Oiartzungo Nazio Topaketan jarraipena eman genion Durangon eztabaidatutakoari. Datozen lau urteetarako ildo politikoaz eta Sortuk egin beharreko dinamizazio politikoaz jardun genuen, baita militantzia ereduaz, zaintza krisiaz, euskalgintzaz, oroimenaz, naziogintzaz, kirolaz eta nazioarteko politikaz ere. Egun eder bezain oparoa izan zen.

Sakoneko eraldaketa nahi dugunaren erakusgarri, ekarpen ugari eta aberasgarriak egin ziren tailerretan. Militanteen hitzartzeek argi utzi zuten orain arteko normaltasun

neoliberalak ez berreraikitzekeo estrategiak abian jarri behar direla, bizitza eta haren zaintza erdigunean jarriko duen zibilizazioa eraikitzekeo. Horretarako, burujabetza berreskuratzeko ari gara, gure bizitzaren kalte-tan ari den kapitalismo patriarkalarekin amaitzeko.

Jendeak oro har gustura parte hartu zuela adierazi zuen. Beharbada tailerrak motz egin zitzaizkien batzuei, denboragatik. Era guztietara, ezker abertzaleak beti izan du gaitasun berezi bat testuingurua ulertu, egokitu eta eragiteko. Eta Durangon eta Oiartzunen ere hori erakutsi zuen; are gehiago, gero eta pintzel finagoa, zehatzagoa, erabiltzen ari gara gure proposamenak marrazteko, nahi dugun Euskal Herria irudikatzekeo.

HERRIGAIA PONENTZIA

Landutako guztia eta eztabaidatutakoa kontuan hartuta, Herrigaia



Argazkia. Nazio Topaketak.

izeneko ponentzia aurkeztu zuen Nazio Kontseiluak irailaren 29an. Bi atal ditu ponentziak: politikoa bata eta organizatiboa bestea. Alde politikoan planteatzen diren zereginiei erantzuten dio alde organizatiboak.

Ponentzian pandemiak utzitako egoerari erreparatzen zaio. Normaltasun neoliberal berreraiki beharrean, sakoneko eraldaketak planteatzen ditu. Mundua bizkor aldatzen ari da, eta estaturik gabeko herriok gero eta zaurgarriagoak gara, ez baitugu boterarik. Krisi eta erronka globalei zein bertakoei eman beharreko erantzunean talka bat egongo da elite ekonomiko eta politiko batzuen interesen eta herritarron interesen artean. Sortuk lehenik herria izango du ipar. Herritarren eta Euskal Herriaren interesen alde borrokatuko gara, boteretsuen eta oligarkiaren interesen aurrez aurre.

Ziurgabetasun garai hauetan, proiektu bat eskaintzen du ezker independentistak, beste mundu bat eraikitzeko norabidean.

Horrez gain, kezka bizi dugu Euskal Herriaren nazio nortasuna lausotzea. Arazoek mundu mailako eskala hartu dute. Pandemia, larrialdi klimatikoa, kultur homogenizazioa... Eta Euskal Herriak ez du behar besteko tresneriarik herri gisa bizirauteko. Ezinbestekoa da gure nazio nortasunaren ikurrak eta dinamikak indartzea; biziraungo badugu, independentzia behar dugu.

Herrigaiaren arabera, ezinbestekoa da bulkada bat ematea borroka askatzaileei eta era berezian Euskal Herriaren eraikuntzari, premiazkoa delako menpekotasuna gainditu eta ahalik eta botere gehien lortzea, gure erabakiak hartzeko. Euskal Estatu baten beharra inoiz baino sakonagoa da.

Hurrengo urteetan Euskal Herrian aro berri bat ireki dadin bilatzen du Herrigaiak; aldatetaren aroa, hala estatus politikoari eta eraldaketa sozialari nola indar harremanei dagokienez. Abagune historiko hau baliatu behar dugu horri guztiari

Euskal Herritik Euskal Herrira erantzuteko. Gure herritarren ongizatearen mesedetan. Mundu mailako eskala duten mehatxuei euskal herritik eta herri ikuspegiz erantzun behar diegu, aukera bilakatuz. Herrigaiaren edukiak aurkezteko herri batzarrak egin ziren herri eta auzoetan.

OSOKO ZUZENKETA

Zenbait militantek aurretik adierazia zuten ez zetozeela bat Atarrabiako Nazio Batzarrak onartutako balantzearekin eta ez Herrigai ponentziak marktatutako ildoarekin. Hori dela eta, osoko zuzenketa bat aurkeztu zuten, Lurrari Lotuz izenekoa.

Osoko zuzenketa aurkeztu zutenek hau argudiatu zuten: "Baieztatzen dugu Euskal Herriaren askapen prozesuak ez duela osasun onik. Hauteskundeei begira egindako aurrerapenez eta udalgintzan egindako lan onaz gain, Sortun (Ezker Abertzalean gure antolakundea) ez

dugu independentziarako, sozialis-
morako eta feminismorako estrategia
argi eta zehatzik ikusten, eta estrate-
gia horrek, gaur egun, langile klasea
erdigunean jartzea besterik ezin du
egin. Ondorio guztiekin. Alderantziz,
anbiguotasunean, zehaztugabetasu-
nean eta proiektu propiorik ezean
mugitzen gara, EH-Bildu eta EH-
Bairen behar politiko-instituzionale-
kiko erabateko menpekotasunarekin.

Herri mugimendua alde batera utzi
dugu eta, ondorioz, jendarte-mobili-
zazioaren eta herri-eskaeren atzetik
joaten gara askotan. Sortuk, LABek
eta Ernaik bezala, bere bidea egin
behar du: herri pultsua areagotu,
nazio pultsua berreskuratu, ideologia
askatzailea sortu, masak ahaldundu
eta, aldi berean, bere proiektu politiko
sozialista definitu eta garatu, pentsa-
mentu feministatik abiatuta, gaur
egun sistema kapitalista patriarkala-
ren subertsio kultural, ekonomiko eta
politikorako indar handienetako bat
baita.

Hainbat herritan egin ziren osoko
zuzenketaren edukiak ezagutzeko eta
Herrigaiarekiko ezberdintasunen berri
izateko batzarrak. Eztabaida horren
ostean, militantziaren gehiengo zabal
batek Herrigaia babestu zuen. Bozketa
honetan parte hartzeko eskubidea 7936
pertsonek zuten, Sortzaile eta akredi-
tatuen artean. Horietatik, 4.556k eman
zuten botoa. %71k Herrigaia ponen-
tziaren alde bozkatu zuen, eta %22k
osoko zuzenketaren alde. Gainerakoek
(%7) zuri bozkatu zuten.

Ponentzia onartu eta egun batzuetar-
ra, Naizeko zuzendari Iñaki Altunak
partaidetza alderatu zuen ezker
abertzaleko beste eztabaida proze-
su batzuekin. Eztabaida prozesuek
beti izan dute partaidetza handia,
eta aukeratutako ponentziak beti
izan du militantziaren babes za-
bala. Bitxikeria modura, 1995ean,
Oldartzen ponentziak militantziaren
babes berbera jaso zuen, %71koa hain
zuzen, Iratzar testu alternatiboaren
aldean. Gisa honetako prozesuetan
partehartze maila 4.000 eta 5.000
artean egon ohi da.

Herrigaia Ponentzia



Herrigaiarekin jauzi bat ematera goaz
nazio askapen prozesuan.

1. Nazio bulkada berri bat sustatu behar
dugu Euskal Herriaren ideia indartzeko
euskal jendartean.
2. Ezegonkortasun eta aldaketa handien garaian
bizi gara. Egoera hau baliatu behar dugu
sakoneko eraldaketa politikoa, ekonomikoa
eta soziala sustatzeko, herritarron interesak
lehenetsiz: balio sozialistetan, feministetan,
ekologistetan eta euskaltzaleetan oinarrituta.
3. Indar eta botere metaketa prozesua da gurea.
Independentziarako saltoa emateko ahalik eta
indar harreman onena behar dugu esparru
guztietan: erakundeetan, kalean zein botere
esparru ezberdinetan.

SUBJEKTUAK

4. EH Bildu eta EH Bai dira burujabetzaren
aldeko herri sektoreen erreferentzia
instituzionalak. Herri mugimenduak dira
jendartearen balioak eraldatzeko tresna.
Jauziak eman ahal izateko baldintzak.

SORTUREN ZEREGINA

5. Sortuk eta ezker abertzaleak, prozesuaren
ikuspegi osoa izanda, guzti hori sustatzeko
zeregina du, ekarpen politikoa eta
militantea eginez.

Aldaketa esanguratsuak eragiteko, aliantza
ezberdinen aldeko lana egingo dugu
aldaketarako bloke historikoa osatuz.

Sortu barne aniztasunaren aldeko apustuan berretsi da, iritzi aniztasun hori zaindu beharreko baloretzat duelako

ZATIKAKO ZUZENKETAK

Ondoren, Herrigaia ponentziari zatikako zuzenketak egiteko garaia iritsi zen. Abenduaren 5ean amaitu zen zatikako zuzenketak egiteko epea, eta guztira 230 aurkeztu ziren. Prozesu osoan etengabe ahalik eta kontsentsu zabalenak eskuratzeko filosofiarekin segiz, egileekin adostasunetara iritsita, horietako asko trantsakzionatu edo bateratu egin dira.

Herri Batzarretan azalduko hainbat kezka eta ekarpen aintzat hartuta, Nazio Kontseiluak ere zerbait autozuzenketa aurkeztu zituen. Horrez gain, Sortuko emakumeen batzarrean azaleratutako ekarpenak ere bere egin eta autozuzenketa modura aurkeztu ditu Nazio Kontseiluak, Herrigaia ikuspegi feminista batetik aberasteko.

Honakoa da bozketara doazen zuzenketen izaera:

- Trantsakzionatutako zuzenketak: 40
- Nazio Kontseiluak babestutako zuzenketak: 31
- Nazio Kontseiluaren autozuzenketak: 21
- Adostasunik gabeko zuzenketak: 27

119 zuzenketa partzial bozkatzeko aukera izan zuten akreditatuek. Guztira 1.876 akreditatuek eman zuten euren botoa abenduaren 17tik 19ra. Ildo Politikoari egindako zuzenketen artean, 70etik 46k egin zuten aurrera. Antolaketa eta funtzionamenduari aurkeztutako 49 zuzenketetatik 36 pasa ziren. Aurrera egin duten zuzenketa guztiak Nazio Kontseiluak babestutakoak izan dira.

Oniritzia lortu duten zuzenketen artean, nabarmentzekoak dira, besteak beste, bost konturi lotutakoak: naziotasuna, ildo sozioekonomikoa, feminismoa, dekolonialitatea eta hirugune handietan segü beharreko ildoak.

Osoko zuzenketen bidez, Sortu eztabaidarako, hausnarketarako, sorkuntzarako eta praktika politikorako espazio irekiak eskaintzen jarraitzeko apustuan berretsi da, baina hemendik aurrera, bozka eskubidea sortzaileek baino ez dute izango. Horrez gain, Sortu barne aniztasunaren aldeko apustuan berretsi da, iritzi aniztasun hori zaindu beharreko baloretzat duelako, eta zentzu horretan hausnarketarako eta eztabaida kolektiborako espazioak biderkatzeko apustua egin du. Edonola ere, bozkatutako zuzenke-

ten bidez garbi geratu da Sortu ezin dela koalizio edo antzeko zerbait izan. Alegia, bozketan atea itxi zaio espazio politiko edota korrante artikulatu edota antolatuek eratzeko aukerari, horrek barne kohesioaren kaltetan eragingo lukeelako.

Kongresua bost urtean behin izatera igaroko da, Nazio Konferentziak urtero izango dira baina lan-urte amaieran eta Nazio Batzarra gutxienez urtean bitan bilduko da. Nazio Kontseiluaz gain, Nazio Idazkaritza ere zuzendaritza markoa izango da, lehena hiru hilabeteko maiztasunarekin eta bigarrena asterokoarekin. Hau izango da Nazio Idazkaritzaren osaketa: idazkari nagusia, idazkari teknikoa (idazkariorde lehena), barne koordinatzailea (idazkariorde bigarrena), Norabidetze Estrategikorako Gunearen arduraduna (idazkariorde hirugarrena), ekintza politikoko arduraduna, herrigintzako arduraduna, barne antolaketa arduraduna, komunikazio arduraduna, nazioarteko arduraduna, gatazkaren ondorioen konponbiderako batzordearen arduraduna eta herrialdeko arduradunak (Ipar Euskal Herria herrialde bakartzat jota).

“Nazio Kontseiluaren osaketan lurraldeen arteko gutxieneko oreka bermatze aldera”, mekanismo zuzentzaile bat ere onartu da bozketan honetan. Horri, Plan Feministan jasota dagoen bezala, zuzendaritzako kideen %40 gutxienez emakumeak izan behar direla ere gehitu behar zaio Nazio Kontseilua zein Idazkaritza osatzeko garaian. Azkenik, Plan Feminista abiatu da, “gure izatearen despatriarkalizazioan urratsak ematen jarraitzea” xede izanda. Horrez gain, planaren jarraipenerako osatu beharreko barne arkitekturari bide eman zaio.

ZUZENDARITZARAKO HAUTAGAITZA

Akreditatuek Sorturen nazio zuzendaritza-organoak aukeratu zituzten urtarrilaren 19tik 21era, bozketan



Argazkia. Herri Batzarra Arrasaten.

bidez. Horrez gain, Kontu Batzorde eta Berme Batzorde berriak hautatu zituzten. Ez zen elkarren artean lehia hautagaitzarik aurkeztu, eta aurkeztutako hautagaitzek militantziaren babes zabala lortu zuten (%89tik gorakoa).

Nazio Zuzendaritza berriak hainbat ezaugarri betetzen ditu, Herrigaiaren hartutako konpromisoak betez. Batetik, herrialdeen arteko oreka bermatzeko har tutako konpromisoa beteko du. Bestetik, Plan Feministan jasota dago zuzendaritza organoetako ordezkarien %40 gutxienez emakumeak izan behar direla. 30 lagunetik 14 izango dira emakumeak eta 16 gizonezkoak, Sortu feministatzeko hartutako konpromisoan aurrerapauso esanguratsua emanez. Ezker abertzaleko belaunaldi ezberdinak ordezkatzeko dituen zuzendaritza da eta, era berean, gazte belaunaldi bat ere inkorporatuko da zuzendaritza arduretara. Profilerik begiraturata, Herrigaiaren jasotako erronkei helzeko gaitasuna izango duten kideak

dira, herrigintzan zein militantzia esparru ezberdinetan ibilbidea duten kideak baitira: mugimendu feministan, ekologistan, hezkuntza mugimenduan, euskalgintzan...

Sorturen Nazio Kontseilua aukeratu berri du militantziak, babes handiarekin gainera. Nazio Idazkaritzarako hautagaitzak %89ko babesak lortu du (%6k bozkatu du ezetz eta %5ek zuziz). Gainerako hautagaitzek %91tik gorako sustengua jaso dute. Emaizta jakin ondoren, jendaurrean aurkeztu da lehen aldiz, Bizkaia pilotalekuan, zuzendaritza berria.

Nazio Kontseiluan, alde batetik, Nazio Idazkaritzako kideak daude, hauexek: Arkaitz Rodriguez Torres (idazkari nagusia), Nuria Alzugarai Gartzia (idazkari teknikoa), Oihana San Vicente Saez de Zerain (barne koordinatzailea), David Pla (nora-bidetze estrategikorako gunearen arduraduna), Itsasne Fernandez Duarte (barne-antolaketa arduraduna), Kizkitza Gil de San Vicente Gurrutxaga (ekintza politikoko

arduraduna), Xabi Iraola Larraia (herrigintza arduraduna), Gotzon Elizburu Beristain (komunikazio arduraduna), Elena Beloki Resa (nazioarteko arduraduna), Haimar Altuna Ijurko (gatazkaren ondorioen konponbiderako batzordearen arduraduna), Lur Albizu Etxetxipia (Nafarroa Garaiko arduraduna), Jon Iker Aramendi Jimenez (Arabako arduraduna), Aitor Servier Etxexuri (Ipar Euskal Herriko arduraduna), Paul Laka Garamendi (Bizkaiko arduraduna) eta Aritz Artzallus Agirrezabala (Gipuzkoako arduraduna).

Horiez gain, beste hauek ere osatuko dute Nazio Kontseilua nazio-irizpideak aintzat hartuta: Aiora Epelde Agirre, Ane Sainz-Espiga Garcia, Asier Zamorano Arri, David Oroz Alonso, Eli Zubiaga San Jose, Haizea Kortaberria Garetxana, Ibai Redondo Beitia, Karlos Monteagudo Fernandez, Iker Alcedo Cano eta Txoli Mateos Gonzalez. Herrialde bakoitzeko irizpideak aintzat hartuta hauek ere izango dira

Nazio Kontseiluan: Maddi Isasi Azkarraga (Arabatik), Gotzon Amaro Lopez (Bizkaitik), Amaia Etxabe Goikoetxea (Gipuzkoatik), Clara Rouget Aranibar (Ipar Euskal Herriatik) eta Gorka Mayo Hermoso de Mendoza (Nafarroa Garaitik).

KONGRESUKO ITXIERA-EKITALDIA

‘Independentziarako Indarra’ lelopean, itxi zuen Sortuk urtarilaren 22an bere hirugarren kongresua, Bilboko Bizkaia pilotalekuan egindako batzarrean, konpromiso garbi batekin: euskal Estatuaren aldeko apustua berritzea. Horretarako, Herrigaia ponentziak onartu duen moduan, independentziarako indarrak metatu eta biderkatzeko lanean

segiko du ezker abertzaleko antolokunde politikoak.

Koronabirusaren eraginez, aforoa nahi baino mugatuagoa izan zen, eta 800 laguntzako lekua baino ez zen egon. Batzarra erdi presentziala izan zen horregatik, eta Bilbora bertaratzeko aukera barik gelditu ziren militanteek telematikoki jarraitu zuten batzarra.

Kongresu-itxierako batzar horretan, hainbat ordezkariak parte hartu zuten gonbidatu gisa. Euskal Herriko ezkerreko alderdi politikoetako ordezkariak gain, sindikatu nagusietako ordezkariak ere izan ziren. Horiez gain, euskalgintza, hezkuntza, feminismo eta bestelako eragile sozialetako ordezkariak izan ziren Bizkaia pilotalekuan.

Nazioartetik, honako ordezkariak bertaratu ziren: BNG (Galizia), Comunes (Kolombia), CUP (Katalunia), ERC (Katalunia), FDLP (Palestina), KNK (Kurdistan), MLN Tupamaros (Uruguay) eta Sinn Fein (Irlanda). Europako Ezkerraren Alderdiko lehendakaria ezin izan zen etorri azken momentuan, baina bideo bidez agurtu zituen batzarreko kideak.

Ekitaldian nabarmendu zen alternatibak, klase-borrokak, feminismoak, arrazakeriaren aurkako borrokak eta bestelako borrokek, Euskal Herrian, nazio askapena ezinbestekoa dutela. Horregatik, borroka ezberdinak artikulatu eta aliantza zabalak sortzearen aldeko apustua egin du Sortuk. Herrigaiian planteatutako erronkek gehiago bat behar dute, ezkerrekoa



Argazkia. Bilbo. Sorturen III. kongresuaren amaierako ekitaldia. Miribilla.

eta burujabetzaren aldekoa. Erakundeetan indartu beharra dago gehiengo hori, EH Bai eta EH Bilduren eskutik.

Azken batean, Sortuk herri bulkada suspertzea bilatuko du, herri gisa jauzi bat egin dezagun. Aurrerantzean, beraz, Sorturen egitekoa izango da bere aktibo politiko eta militantea askapen-prozesuaren zerbitzura jartzea. Horrek esan nahi du herriarekin batera lan egitea, eskuz esku, herriarentzat. Horrek esan nahi du betiko eremuetan eragitea, baina baita orain arte sekula aritu gabekoetan ere.



Sortuko emakumeon konpromiso feminista

Ezker abertzaleko emakumeok bildu gara Sorturen III. kongresuan, eta badugu zer aldarrikatu. Aldaketa garaian gaude, aldaketa handiko garaian. Egoera makurra bizi dugu, krisi anizkoitzek zeharkatzen gaituzte; baina, aldaketek dena egiten dute posible.

Arrazoia genuen. Feminismoak aspaldidanik salatu bezala, egungo bizi eredu ez da jasagarria. Hori are agerikoagoa izan da azken bi urteotan: zaintza krisia lehertu da, eta biolentzia eta indarkeria matxistaren oldarraldia bete-betean bizi dugu gure gorputzetan. Zer esan, azaroaren 25aren biharamunean!

Baina, era berean, erroko eraldaketetarako aukerak irekitzen dizkigun momentua dela jakinda, Ezker abertzaleko emakumeok prest gaude aurrean dugun erronkari heltzeko. Prest gaude herri honek burujabetzara bidean eman beharreko jauzia egiteko. Eta jakin badakigu, jauzi horrek feminista izan behar duela ezinbestean, eraikiko dugun Euskal Errepublika feminista izango baita, ala ez da izango. Eta hauspotu nahi dugun nazio bulkada ere geuretik egingo dugu.

Bide horretan, burujabetzaren beharra aitortu nahi dugu. Honek ez du forma bat eta bakarra; burujabetzak pluralean ulertu eta eraiki nahi ditugu: herriarena, norberarena, kolektiboarena. Horiek elkarren beharra dute; ez dagoelako herri burujaberik pertsona burujaberik ez bada, eta ez da pertsona burujaberik izango herria burujabe izan ezean. Horrek, ezinbestean

ertzetatik atera eta erdigunea hartzera garamatza. Beste modu batera esanda, boteretzea dagokigu, botere eta botereguneak hartzea dugu helburu.

Euskal estatu bat eraikitzeaz gain, bizitzak erdigunean jarriko dituen herri batean bizi nahi dugulako, egungo sistema kapitalista heteropatriarkal koloniala erauzi nahi dugulako. Eta horrek herri mugimenduko borroken arteko txirikordatzea eskatzen du, eskuz esku elkarrekin lan egitea, dirigismotik urrunduz eta harreman horizontalak eraikiz. Izan ere, herri mugimenduak estrategikoak dira Herrigaiaren helburu dugun jauzia egiteko, eta hor mugimendu feminista lehen lerroko subjektu da eta izango da.

Beraz, argi dugu prozesu honetan dugun konpromisoa; bai Euskal Herriari begira, baita gure etxeari begira ere. Hau da, bide hau benetan feminista izan dadin, gure ohi-tura eta egiteko moduak ere parez pare begiratu eta eraldatu behar ditugu, bizigarria den eta bizitza erdigunean jartzen duen militantzia eredu sakondu; beste hitz batzuetan esanda, "etxea feministatu" behar dugu. Are gehiago, egiturazkoa den indarkeria matxista errotik erauzteko tresnak sortu eta garatzen jarraitu behar dugu; zentzu horretan, ez dugu atzerapausorik onartuko.

Amaitzeko, erronka horiei guztiei erantzuteko plan feminista bere osotasunean garatzen jarraitzeak eta betetzeak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu: eta hori egiteko konpromisoa adierazi nahi dugu hemen. Baita askapen prozesuarekiko, falta direnak etxeratzeke, zein burujabetzaren alde aritzeko dugun konpromiso eta anbizioa ere.

Feministok Herrigai dugu indargai, gu geu gara indargai. Euskal Errepublika ekofeminista eraikitzen goaz!

Agurra Sorturen kongresuari

Joan den urtarrilaren 22an Bizkaia pilotalekuan egin zuen Sortuk bere kongresu amaierako biltzarra. Aurrekoan egin zuen moduan, oraingo kongresu amaiera honetara ere bere agurra eta besarkada helarazi zuen EPPK-k. Hona hemen euskal preso politikoen kolektiboaren agurra hitzez hitz:

Sorturen Kongresu amaierako biltzar honetara batu zareten guztioi gure agur beroa helarazi nahi dizuegu. Agur adeitsu eta sentituena gure herri honentzat etorkizun hobea irudikatu eta horren aldeko ihardun nekagaitzean ari zareten guztioi.

Zuekin egon nahi genuke gaur, eta zuekin gaude sentipenetan, asmoetan, gogoeta eta erabakietan, aurre-rapauso bakoitza partekatuz, Herrigaia landuz. Baina baditugu mila traba fisikoki zuekin egoteko. Osasun larrialdiaren ondorioz ezarritako murrizketa eta ezintasunez gain, katean lotuak nahi gaituzten Estatuak ezarritako mugak eta zigorrak ditugu tartean. Dagoeneko ohituak behar genuke traba hauetara, baina ez gara ohitzen, eta ez dugu ohitu nahi. Hau ez baita egoera normala, ez egoera onargarria.

Ez da onargarria eta ez da justua frantziar eta espainiar estatuak gure herriarekiko duten jarrera, gure eskubide sozial eta politikoez, gure hizkuntzarekiko, gure nortasun nazionalarekiko duten gutxiespen eta nagusikeriazko jarrera. Ez da justua eta ez da onargarria etorkizunari begira iraganeko estrategiak eta politika ezartzea, menpekotasuna eskaintzea, injustiziaren aurrean herri honen askatasuna eskatzea balitz bezala arazoa.

Badugu zer eginga eta zer aldatua eta, Ezker abertzalea indargabetu eta zatitu nahi dutenen aurrean, gure ildoan ahaleginak eta indarrak batzeko eta biderkatzeko garaia da hau. Horretan ari gara, guztiok, zuek hortik eta gu hemendik. Espetxeetako egoerari dagokionean pitzadura batzuk eragin dizkiogu euskal preso politikooi hamarkada luzez ezartzen zaigun politikari. Euskal Herriratzeko aldarrikapenean egindako aurrerapena baloratzen dugu, eta gure eskerrona adierazi nahi diegu aldarrikapen horren alde modu nekagaitzean aritu zareten guztioi, eta bereziki hamarkada hauetan gure bisitarietara lagundu dieten Mirentxineko gidariei. Sortuk

aurreko kongresua egin zuenean 350 euskal preso politiko ginen bi estatuetako espetxeetan, espetxerik urrunetan sakabanatuak. Gaur 20etik behera jaitsia da kideon kopurua, eta jaitsia da distantzien handia ere. Zuei guztiei esker, inoiz ez gara urrun sentitu, inoiz ez dugu bakardadean gurutzatu basamortua.

Oraindik, hala ere, urruneko ostertzean dugu helburua. Ezin baitugu ahaztu salbuespen legedia ezartzen zaigula oraindik, euren legeria bihurtuz, zigor bikoitzak ordainaraziz, adin handikoen eta gaixoen kaleratzea oztopatuz, kaleratzeko baldintzak bete arren bide hori trabatuz, irizpide gizagabeenak baliatuz. Preso, iheslari eta deportatu politikorik gabeko herria nahi dugu eta behar dugu. Askatasunaren alde borrokatzeagatik ihesean edo preso gaudenok etxean behar baitugu, herri libre bat eraikitze bidean laguntzeko.

Atzera begiratuak erakusten digu aurrera egitea inoiz ez dela erraza; atzera begiratzean ikusten ditugu bide latz honetan geratu direnak. Antton Troitiño burkidea dugu gogoan, bere bizitzako urte gehienak kartzeletako patioetan igaro zituen bidaide leiala.

Gauzen egoera aldatzea neketsu denean, norbanakoaren egokitasun indibiduala bilatzen dute batzuek, etorkizun hobeari alde borrokatzeak eskatzen duen konpromisoari eta eskuzabaltasunari ihes eginez. Beste eredu bat eman digute eta ematen diguzue inoiz etsi gabe, bakoitzak ahal duen neurrian, etsi gabe eta zintzoki jarraitzen duzenok. Elkarrekin partekatzen ditugun egitasmo eta helburuek batzen gaituzte eta badakigu batuta handitzen direla gure indarrak. Eta indarren beharra dugu, gauzen egoera iraultzeko, gure helburuetara hurbiltzen jarraitzeko, biharko Euskal Errepublika eraikitzeko.

Biltzar honetan zaudeteno eta herri honen etorkizunari begirako proiektu honetan ari zareten guztioi gure besarkada helarazten dizuegu, Euskal Herriaren askatasunaren alde aderez jarraitzea animatuz.

Euskal Herria bihotzean
2022ko urtarrilean

Gora Euskal Herri independente,
feminista, sozialista eta euskalduna!

BOSTI EHI UN ETA

ZUTIK



**STREETWISE · NIKOTINA · MARTA & HERBASS
LIHER · DJ REIMY · PLEURA · WILLIS DRUMMOND
YARE COLLECTIVE · LA FURIA · TREMENDA JAURIA
SKAKEITAN · XIBEROOTS · KALEKO URDANGAK**

GAZTEOK INDEPENDENTZIA

**HERDOIL · RUKULA · ROMEA · MCONAK · PERLATA
TRIBADE · IRUÑERRIA JAMAICA CLASH · IBIL BEDI
AIARALDEKO SOUND SYSTEM · SILITIA · DUPLA
CRIM · XSAKARA · SKABIDEAN · IHESKIDE · SUA**



**@500_ZUTIK
ernai.eus**

**APIRILAK 14///17 · GAZTE MARTXA
ZUGARRAMURDI///ERRATZU///ELIZONDO**

Crónica de enero

Miles de personas por y con los presos

Pocos días antes de la gran cita anual por los presos se dio a conocer que el preso gasteiztarra Asier Bengoa había recuperado la libertad aunque fuera en situación condicional. Su excarcelación dejó el número de presos políticos en 194, muchos menos que en las citas anteriores pero demasiadas personas a las que se continúa vulnerando sus derechos e impidiendo el regreso, no ya a Euskal Herria, si no a casa en libertad.

Hace ya años que, en todos los rincones de Euskal Herria, la visualización del sufrimiento de los presos vascos se hace patente por Navidad y viene culminando en una masiva movilización anual que pone punto y final a esa dinámica socializadora y reivindicativa. Sin embargo, desde hace una década y auspiciada por la decisión de ETA de poner fin a la lucha armada, la movilización por los presos de primeros de Enero dio un salto cualitativo evidente reuniendo cada año a no menos de 80.000 personas y llegando a superar la berrera de las 125.000 personas en varias de las citas anuales.

Por segundo año consecutivo y como sucediera en 2021, en el estreno 2022 tampoco pudo ser. No, no hubo movilización gigantesca en Bilbo porque la pandemia lo volvió a impedir y porque, al contrario que otros mandatarios que, con la que estaba cayendo, mantuvieron cabalgatas, rebajas o estadios de fútbol repletos, Sare acabó demostrando una sensatez y responsabilidad que, sin desconvocar la enorme movilización nacional por los presos, sustituyó el escenario único por nada menos 191 escenarios locales en toda la geografía vasca.

Estas casi dos centenares de citas volvieron a congregarse a decenas de miles de personas y a llenar plazas y calles para abrir las puertas de las celdas y para reclamar que la convivencia se dará con los presos en libertad o resultará una quimera.

En esta ocasión, los familiares no tuvieron, como en años anteriores, que renunciar a la visita semanal para estar presentes en la cita anual porque buena parte de los presos se encuentran en prisiones vascas o en las periféricas prisiones del

estado español y el estado francés. Sin embargo, la repatriación de los encarcelados no se acaba de culminar y, una década después que la violencia desapareciera en una parte de la ecuación, las políticas y las prácticas penitenciarias de excepción aún vigentes seguían haciendo necesario el reclamo de su desaparición. Los derechos humanos siguen estando necesitados de la movilización social aunque al PNV no se lo parezca.

Derechos humanos entre los que se encuentran la excarcelación de la veintena de presos gravemente enfermos y de los mayores de setenta años. Derechos que exigen el fin de las políticas de excepción emanadas de leyes ad hoc como la 7/2014 que condena a medio centenar a dobles penas (francesa y española) o la ley 7/2003 que elevó las condenas al umbral de la inhumanidad de los 40 años para un número significativo de prisioneros políticos. Pero, también el fin de la otra “excepcionalidad” que cierra y obstaculiza de forma generalizada y para todos los presos el tránsito hacia la libertad condicional a través del recorrido



ordinario al impedir los previos pasos de acceso al tercer grado o el disfrute de los permisos ordinarios de salida. Una excepcionalidad cotidiana que está tejiendo el, nunca mejor dicho, Tribunal de excepción que es la Audiencia Nacional, tanto en la Sala de Penal de su Sección 1º como en el Juzgado Central Vigilancia Penitenciaria (JCV) emanado de la ominosa ley 7/2003.

Bilbo no pudo convertirse en el gran escenario de la solidaridad ni el escenario único para la reivindicación de los derechos de los presos, pero miles y miles de personas en el resto del país asumieron el reto y acabaron emplazando a los estados a poner fin a la prácticas y la legislación excepcionales. También, a su manera, estas movilizaciones emplazaron al Gobierno Vasco, dueños ya de la competencia de prisiones, a la no aplicación de dichas medidas excepcionales o emanadas de la excepcionalidad, e incluso emplazó a la mayoría de la investidura en Madrid para que, de una vez por todas, se legisle en clave de Derechos Humanos y se deroguen esas leyes puestas en pie por el PP y que siguen haciendo de los presos vascos la excepción.

Salvo en Baiona y alguna otra pequeña localidad, las movilizaciones convocadas dieron comienzo a las cinco de la tarde y fueron arropadas por una amplia mayoría social, sindical y política. Entre los sindicatos ELA, LAB, UGT, CCOO, Steilas, ESK, Etxalde, HIRU, CGT, CNT y EHNE, entre los partidos políticos EH Bildu, Eh Bai, Elkarrekin Podemos y, aunque si estuvo presente en el acto matutino en Bilbo, llamó la atención el descuelgue movilizador del PNV reclamando que ahora es tiempo de negociación.

Desde fuera de Euskal Herria la solidaridad estuvo presente a través de delegaciones políticas de ERC, CUP, Junts, BNG y de organizaciones sociales como ANC, Ómnium, Consell per la República,...

La primera marcha en arrancar fue la de Baiona, que no estaba convocada por Sare sino por Bake Bidea y Artesanos por la Paz. Una convocatoria a la que se sumaron diferentes cargos electos de las distintas formaciones políticas de Ipar Eukal Herria incluido Jean-René Etchegaray, presidente de la Mancomunidad Vasca. Bajo el lema “Le temps presse. Ion, Jakes eta Unai gurekin”, las tres columnas que partieron desde Lauga, Esukaldunen Plaza y Reduit Plaza, dieron comienzo a las tres de la tarde denunciando que Jakes Esnal, Ion Parot y su hermano Unai Parot llevan ya 31 años presos. La movilización de Baiona reunió a varios miles de personas y venía a suponer el principio de una dinámica global en favor de los tres presos de Ipar Euskal Herria y anticipaba que la cuestión de los presos vascos sin duda también estará presente en la campaña de las presidenciales francesas de abril.

En el resto de capitales vascas, Gasteiz optó por un formato en columnas bastante similar a la marcha de Baiona. A las 16.00 horas partieron sendas marchas desde el Palacio Europa, la iglesia de San Juan y el centro cívico Iparralde para confluír todas ellas en el centro cultura Artium desde donde a las 17.00 horas en punto partía la nutrida manifestación que finalizó en la Plaza de la Blanca. A la misma hora que en Gasteiz, se inició desde la Plaza Elíptica el recorrido por las calles de Bilbo en una gran manifestación que congregaría a miles de personas resultando ser la más concurrida de todas las movilizaciones desarrolladas en la jornada en cada una de las cinco capitales. En Donostia, la cita no se desarrolló por un recorrido no habitual, partió desde la Plaza Centenario en el barrio de Amara y los miles de personas presente recorrieron las calles donostiarras hasta culminar en el Boulevard.

La cita de Iruñea fue la más tardía, la manifestación arrancó a las 19:00

horas desde la Plaza de los Ajos, donde se reunieron los diferentes agentes sociales, sindicales y políticos que se sumaron a la demanda de Sare de poner fin a las políticas penitenciarias de excepción, de dar pasos para vaciar las cárceles y reclamando igualmente una salida para los exiliados vascos. Los cientos de manifestantes, bajo el constante grito de “Euskal presoak, etxera”, agrupados en filas recorrieron Alde Zaharra y a través de la plaza del Ayuntamiento accedieron a la Plaza del Castillo y Paseo Sarasate tras una pancarta con el lema “Elkarbizitzarako. Bakerako. Etxerako bidean” hasta llegar a la plaza San Francisco. Allí, les recibió una lona enorme que demandaba el fin de la política de excepción con el lema “Stop salbuespen neurriak”. La movilización de Iruñea estuvo marcada por la situación de Izadi, que al cumplir tres años se convertiría en otra “niña de la mochila”.

En Nafarroa, como en el resto de Euskal Herria, las movilizaciones comenzaron horas antes, e incluso la víspera para sumarse el sábado a la movilización de Iruñea. El listado de convocatorias de Sare acabó incluyendo 61 citas en Nafarroa, 8 en Araba, 53 en Bizkaia y 62 en Gipuzkoa que se desarrollaron en diferentes formatos, bien como manifestaciones, cadenas humanas, mosaicos o concentraciones en los diferentes pueblos y barrios con el mismo objetivo de denunciar la política penitenciaria de excepción. Las localidades de tamaño medio y cabeceras de eskualde fueron los lugares en que las concentraciones fueron más numerosas.

Goiko argazkia
Baiona. Presoen
aldeko manifestazioa.

Behoko argazkia
Bergara. Presoen
aldeko manifestazioa.





POLITIKA GIZAGABEA

2021eko udazkenak ekarri digu Antton Troitiño presoaren heriotza. Antton ez zen protagonismo bila ibiltzen direnetakoa, baina espetxean eduki duten urteetan oihartzuna eman zioten haren izenari, eta gehienetan ez da izan asmo onez emandako oihartzuna.

1987ko urtarrilean atxilotu zuten Antton, eta 2011ko apirilean askatu zuten Huelvako kartzelatik, 24 urtez preso eduki ondoren. Anttonen kasuan hasiera batean ez zioten ezarri Parot Doktrina deituaren irizpidea eta, beraz, zegozkion erredentzioak kontatuz, ezarritako zigorra osorik beteta zeukan kaleratu zutenean. Haren aurka eta egundoko kanpaina politiko-mediatikoa abiatu zuten, ordea, berehala, eta, berriro espetxeratzeko arriskuan zegoela ikusita, erbestera aldegitia erabaki zuten.

Aske utzi eta egun gutxira, fiskaltzaren helegite baten ondorioz, espainiar Auzitegi Nazionalak atzera bota zuen kaleratze agindu hura, eta atxilotzeko agindua eman zuen. Hurrengo urtean, 2012ko ekainaren azkenetan atxilotu zuten Antton, Londresen, eta Auzitegi Nazional es-

painiarrak haren estradizioa eskatu zuten. Urtebete geroago Espainiak eskatutako estradizioa onartu zuen Londresko Tribunalak, baina aske geratu zen behin behinean, Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiak bertan behera utzitako Parot Doktrina deituak kasu honetan zer eragin izango zukeen erabaki arte. 2014ko otsailan berriro atxilotu zuten Erresuma Batuan; berriro ETA erakundearen sartu izana egotzen zion Espainiak, baina beste behin baldintzapean aske utzi zuten.

2017ko maiatzean Espainiara estraditatu zuten azkenik, eta 2018an 6 urteko espetxe zigorra ezarri zioten. 2021eko otsailaren 5ean kaleratu zuten azkenik, eta 10 hilabete geroago hil da, abenduaren 17an, gaixotasun larri baten ondorioz.

Euskal preso politikoei ezartzen dieten salbuespeneko espetxe politikaren aspekturik krudelena erakusten du Antton Troitiñori ezarri ziotenak. Zigorra ahalik gehien luzatzeko saiakerarekin aurrena; ezarritakoa bete ondoren, zigorra inoiz amaitu ez dezan espetxealdi gehitua

ordainarazteko araudia eta zuzenbidea bihurrituz jarraian; gaixotasun larria diagnostikatu ondoren, tramite eta helegite administratibo eta judizialtan nahastuz kaleratzea ahalik gehien atzeratuz azkenik. Salbuespeneko espetxe politika are krudelago eta gizagabeago bilakatzen da adin handia duten presoengan, eta zer esanik ez gaixotasunen bat dutenen kasuetan. Gaixotasun larri eta sendaezina duen pertsona bati kaleratzea oztopatu eta espetxealdia luzatzeak jarrera mendekatia erakusten du, batez ere gaixotasun hori espetxean sortua denean eta espetxealdia luzatzeak bizitza laburtzea suposatzen duela demostratua dagoenean.

Espainiar estatuak bere espetxe politika eta irizpide penitentziarioarekin erakutsi digu euskal preso politikoen oinazearekin elikatzen dela eta ase ezina dela. Euskal preso politikoez gatikubuen biziarekin eta sufrimenduekin elikatzen den munstroa da, azken batean, espetxe sistema hau. Eta munstro gizagabea da sistema, irizpide gizagabeetan eraikia, gaixotasun larriak dituzten presoak heriotza

Euskal preso politikoak, eta gaixorik direnak premiazko lehentasunez, sendatzeko eta bizitzeko kaleratu behar dira, eta ez kartzelak bizitza eta osasuna erauzi ondoren hiltzeko

ahalik hurbilen dutenean baizik kaleratzen ez dituenak. Horrela egin dute behin eta berriz, beren jokabide mendekatia zein zitala izan daitekeen erakutsiz. Espetxean bertan hil diren euskal preso politikoez gain, gaixotasun sendaezina oso aurretatua zutela kaleratu eta gutxira hil dira Esteban Esteban Nieto, Oier Gomez, Josu Uribebarria, Juan Mari Maizkurrena, Belen Gonzalez, Jose Angel Ochoa de Eribe, Asier Aginako... eta zerrenda luzeegi bateko azken izena eta izana da, orain, Antton Troitiño. Zerrenda horretan zinez azkena izatea nahi dugu; euskal presoak kalean eta etxean bizitzeko aske geratzea nahi baitugu.

1987an hil zen Josu Retolaza preso ohi eibartarra, gaixotasun larriarekin kaleratu eta zazpi hilabetera. Orduetik beste 17 euskal preso politiko hil dira espetxean larriki gaixotu ondoren kaleratu eta gutxira.

Ez da kasualitatea espetxea, gaixotasuna eta heriotza eskuz esku joatea elkarrekin. Are gehiago kartzelaldiaren urte kopurua handitzen doan heinean. Espetxealdi luzeak ezinbestean berarekin ditu beste

gehigarri zital batzuk, bizi baldintza gizagabeekin zerikusi zuzena dutenak. Bizi baldintza horiek areago gaiztotzeko eta presoehi ahalik kalte handiena eragiteko espresuki diseinatu da euskal presoehi lau hamarkada hauetan ezarri zaien politika penitentziarioa, espetxeratuak beren ingurune sozialetik eta herritik urrunduz, bakartuz, eta bakardadean eta urruntasunean jazarritik eta zigortuz, edozein erosotasun kenduz, dena zailduz, presoak une oro tentsioan mantentzeko modua eginez, edozein beharizanen aurrean inpotentzia sentiaraziz eta trabak biderkatuz.

Kartzeletako osasun arreta eskasa kontuan hartu behar da, baina euskal presoehi ezartzen zaien salbuespen politikak modu deliberatuan zaildu eta oztopatzen du espetxe sistematik kanpoko osasun arreta bideratzea eta jasotzea ere. Gaixotasun larria izan duten eta duten euskal presoek kasuan, gaixotasuna sendaezinezko puntura iritsi dela frogatuta ere, kaleratzea modu deliberatuan oztopatu eta ahalik gehien atzeratu dute Auzitegi Nazionalak eta Gobernu espainiarrek.

Euskal preso politikoak, eta gaixorik direnak premiazko lehentasunez, sendatzeko eta bizitzeko kaleratu behar dira, eta ez kartzelak bizitza eta osasuna erauzi ondoren hiltzeko.

Antton Troitiñori lehen momentutik espetxealdia ahalik zailena eta ahalik gogorrena egiten saiatu ziren. Espetxe erregimen krudeleanean bizi behar izan zuen; Alcalá eta Herreratik hasi eta Estremeratik kaleratuz bukatuz zuen ibilbidean. Espetxeen labirintoan, urteetan espetxe espetxe, patioz patio, kide asko ezagutu eta lagun ugari egin zuen Anttonek, eta denek gogoratuko dute bere alaitasuna, txantxetan aritzeko joera, umorea.

Ez zuen espetxealdi erosoak izan, baina ez zen kezaka aritzen zen kidea. Egoerarik okerreanean ere alde ona aurkitzen saiatzen zen, bere jarrearekin kideak animatzen, elkartzasuna praktikan erakusten. Aztarna utzi zuen Anttonek bere ibilbidean ezagutu zutenengan, eta haietako asko hurbildu ziren senideei atsekabea adierazteaz batera lagunari azken agurra egitera.


ARNAS- BERRI- TZEN

PLAZA HUTSA
HERRIGINTZAZ
HAUSNARTZEKO
EZKERREKO
INDEPENDENTISMOAREN
PLAZA



II. Kongresuaren ostean, Sortuk Plaza Hutsa egitasmoa jarri zuen martxan. Plaza Hutsa ezkertiar eta independentistontzat herrigintzaz hausnartzeko eta gogoeta egiteko plaza ireki eta kolektiboa izateko jaio zen. Herrigintzaren inguruan orokorrean hausnartzeko plaza, baina baita ezkerreko independentismoarentzat estrategikoak diren eremuen inguruan aritzekoa ere.

Plaza Hutsa, martxan jarri zenetik, eremu ezberdinen inguruko gogoe-ten testigu izan da. Besteak beste, XXI. mendeko herrigintza moldeen inguruan, ekologismoak dakar-tzan erronka berrien bueltan edota Euskal Herriak behar duen hezkun-tza sistema publiko eta burujabea-ren gainean aritu gara.



**Hamarkaden
joan-etorrian iraun
duen euskalduntzean
fase berri bat irekitzeko
unea da gaur.**

**Hizkuntza eskubideen
aldeko borroka
botere-harremanak
eraldatzearekin
lotzen da beraz,
justizia sozialean
eta demokrazian
oinarritzen den beste
jendarte eredu baten
aldeko ekimena da.**

Gogoeta horien artean azkena Euskal Herriaren be-reuskalduntzearen inguruan egindakoa da. Hiru urteko prozesu kolektibo baten emaitza da “Euskalduntze prozesua arnasberritzen, ezkerretik eta independen-tismotik” proposamena. Ezkerretik eta independen-tismotik egin dugu proposamena, beraz. Jakitun gara euskalduntzeak hainbat diskurtso eta ikuspegi behar dituela eta gurea horietan bat gehiago dela. Inori tokirik kendu gabe, gehitzera datorren proposamena da gurea. Halaber, balioetsi behar da prozesuaren beraren izaera. Izan ere, proposamen hau osatzeko burutu dugun pro-zesuan 200 kide baino gehiagok hartu baitute parte.

Hona hemen modu laburrean proposamen honek jasotzen dituen edukiak:

Egoeraz

Asko da euskalduntze prozesuan aurreratu dena. Azken hamarkadetan hiltzorian zegoen euskara XXI. mendera bizirik ekartzea lortu da. Europa mailan eredugarria da gure hizkuntza berreskurapen prozesua. Mugimendu euskaltzalearen lorpena da nagusiki. Milaka euskaltzalearen konpromisoari esker lortu baita lorturikoa. Herrigintzatik eta sen komunitariotik sortu dira ikastolak, AEK, gau eskolak, ehunka euskara elkarte... Horrek guztiak aitortza merezi du, eta balioetsi egin behar da.

Baina, hori esanda, XX. mendearen erdialdean abiatu zen euskalduntze fase arrakastatsua agortzen ari dela suma dezakegu. Euskararen ezagutza ez da aurreko hamarkadetan besteko abiaduran hedatzen ari; ezagutzak motelaldia bizi du. Bestalde, hainbat ikerketetan ikusi ahal izan da euskararen erabilera beherantz egiten hasia dela. Dazkagun datuekin, eta galera-irabazien arteko erlazioa gorabehera, euskararen etorkizunak gutxieneko bermea lortu duela esan ahal izatetik urrun gaude, baita euskarak posiziorik onena duen lurraldeetan ere.

XXI. mendeak berarekin dakartzan erronka berriak ere parez pare ditugu: digitalizazioa, kulturalki inoizko euskal jendarterik anitzena, mundu globalizatua... Eta hori guztia gutxi balitz, azkenaldian ikusi ez bezalako ofentsiba juridiko-politikoak martxan da euskararen kontra. Ipar Euskal Herrian hezkuntza sistema publikoan murgiltze eredia martxan jartzearen inguruko debekua; Hego Euskal Herrian administrazio publikoan aritzeko langileek bete beharreko soslai linguistikoaren inguruan ateratako hainbat ebazpen; ETB3 Nafarroa osora hedatzeko erabakiaren aurrean hainbat alderdi politikok harturiko jarrera edota Ikastolen aurka entzun behar izan ditugun adierazpenak dira horren adibide. Ez dira kasu isolatuak, aspalditik datorren katearen katebegi bat gehiago baizik. Zapaldua (euskara) zapaltzaille bilakatzeko jokaldi berri bat.



Argazkia. 80 lagun inguru Portugaleteko merkatuan egindako Plaza Hutsaren saioan.

Norbanakoaren hautuak soilik ez du bermatuko hizkuntzaren etorkizuna. Euskara higatzeko etengabeko politika bat dago. Norbanakoaren hautuarena falazia bat da, azken batean. Izokinak korrontearen kontra igeri egiten du, baina, igeri egiteari uzten badio, korrontek eraman go du. Eta hizkuntzarekin gauza bera gertatzen da: oso konprometituta egonagatik, korrontea beti kontra badaukat, igeri egiteari uzten diodan momentuan eraman egingo nau. Dena kontra daukagun egoera batean pisua norbanakoaren erabakian jartzea tranparen parte da. Badago nolabaiteko normalizazio faltsu baten mantra hori. Ematen du euskaraz ikasteko eskubidea dugunez geure esku dagoela. Gezurrezko normalizazio bat da.

Jauzia **Euskalduntze fase berri bat** **martxan jarri beharraz**

Hamarkaden joan-etorrian iraun duen euskalduntzean fase berri bat irekitzeko unea da gaur. Datu positibo ukaezin batzuen ondoan nahi baino datu kezkarri eta itzal gehiago ditugu. Horregatik diogu euskarak herri susperraldi berri bat behar duela. Eta horretarako dugun erronka handietako bat da aterki ideologikoa berritzea. Gure ustez, diskurtsoa berritzeko bi ildo dira bereziki interesgarriak:

Batetik, hizkuntza gatazka identitate auzi hutsetik ateratzen duen diskurtso eta praktika lerroa. Hau da, euskaldun/ez-euskaldun parametroetatik jauzi egin eta herri-

tar/hiztun eskubideetara eraman; hots, demokrazia eta justizia sozialaren terminoetara eraman. Feminismoak edota erabakitze eskubidearen gaineko diskurtsoak egin duen moduan, alde aurretik identitarioak lirakeen auziak herritar/ez-herritar, eskubide osoko/eskubiderik gabeko, demokrata/ez-demokrata parametro unibertsalizatuera eramatea. Hizkuntza eskubideen aldeko borroka botere-harremanak eraldatzearekin lotzen da beraz, justizia sozialean eta demokrazian oinarritzen den beste jendarte eredu baten aldeko ekimena da.

Horren osagarri litzatekeen ildo diskurtsiboak, berriz, herri/kultur identitatearen aldarrikapenean ezkerreko irakurketa positiboa berreskuratu beharko luke: pertsonen eta kolektiboen nor izatearen, burujabetzaren (erabakimenaren) esparruan kokatu. Kultur homogeneizazioa da neoliberalismoaren lanabes eragingarrietako bat: desira eta espektatiba berdinak dituzten pertsonak nahi ditu munduko edozein lekutan. Esan bezala, euskal egitasmoak homogeneizazioaren kontrakoa, berdintasunaren eta askatasunaren aldekoa behar du izan. Identitatearekin egiten dugu topo hemen eta horrekin lotutako sentimendu eta ideiekin. Auzi hau ez da iraganezko kontua, balio unibertsalen aldean “partikulartasunera” kondenatzen gaituena. Aitzitik, globalizazioaren krisiaren garai honetan funtsezko aldagaia bilakatu da. Izan ere, globalizazioaren arrakastaren ospakizunak atzean utzita, burujabetzaren aldeko diskurtsoak indarrez datoz bueltan. Neoliberalismoak taldetasuna haus-tan du, kolektiboa, komuna eta publikoa dena pribatizatuz; norbanakoa bakar-bakarrik nahi du merkatuaren

aurrean. Jendarte hauskor eta zatikatuak dira gaurkoak, talde baten parte sentitzeko premia bizia dutenak. Identitatearen eraikuntzari, nor izateari (nor-tasunari) edo, nahi bada, herri-kontakizunari etorkizuneko proiektio eraldatzailea emateaz ari gara.

Berritze ideologiko hau ezkerreko independentismoak fase politiko honetan behar duen berrikuntza ideologikoaren parte da, eta, beraz, erabat txertatuta behar du askapen egitasmoaren corpus ideologikoan. Euskarak askapen egitasmoan izan duen erdigune sinbolikoa birdefinitzea da proposatzen ari garena.

Ortzi-muga Euskarak independentzia behar du Euskaldunok estatua behar dugu

Euskarak independentzia behar du. Euskaldunok estatua behar dugu. “Estatu batekin, agian, euskara ez da salbatuko; gabe, ziur ezetz” Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegiren esaldiak gaurkotasan handia du gure begietara. Izan ere, neoliberalismoak ekoitzi duen mundu global eta homogenizatzailean hizkuntza minorizatuek estatua tresnak inoiz baino beharrezkoagoak izango dituzte aurrera egin nahi badute.

Uste dugu euskarak eta euskalgintzak paper garrantzitsua izan behar dutela estatua bat eraikitze bidean. Estatu hori edukitzeko herritarren arrazoi nagusietako bat euskararen aldeotasuna izango da. Eta, bestalde, euskaltzale diren horiek ikusi behar dute beraien nahi hori burura eramateko ezinbestekoa dela estatua bat izatea. Erabat lotuta dauden aferak dira, eta elkar elikatu dezaketen prozesuak.

Ildo estrategikoak Lau helizedun errota

Lau ildo estrategiko edo lan esparru nagusi zehaztu ditugu gure proposamenean:

Baga, hizkuntza politika berri baten aldeko ekosistema. Hizkuntza politikak askiek izan diren ebidentzia saihestezinaren aurrean, hizkuntza politika berria ezinbestekoa da. Jada beste deusi itxoin beharrik gabe, eta indar betez abiatuta. Lurralde lurraldeko hizkuntza politiketan aldeak egon daitezkeen arren, euskararen lurraldea bere osotasunean hartuko duen ikuspegia barneratu behar dute erakundeek, eta beren politikak koordinatu, gauzatu eta norabide berean jarri. Gaur egungo egoera irauli eta hizkuntza-politikak eztabaidaren erdigunean jartzeko, lanketa hori garatuko duen ekosistema oso bat eraiki beharrean gaude. Hemen proposatzen diren ildo estrategikoen bidez, besteak beste, ekosistema hori osatu eta indartzen joatea aurreikusit

da. Biga, mugimendu euskaltzalearen biziberritzea. Euskalgintza biziberritzeko hiru bide proposatuko ditugu hemen:

1. Hizkuntza gatazka azaleratuko duen lan-moldea eta forma askotariko praktika politiko euskaltzalea behar dugu, hizkuntzaren auzia problematizatu eta hizkuntza politiketan aldaketak beharrezkoak direla ikusaraziko duena.
2. Intersektionalitatearen bidea jorratzen duen elkargunearen ideia da bigarrena. Feminismoaren, ekologismoaren edota arrazakeriaren kontrako mugimenduaren eta euskaltzaletasunaren arteko gurutzaketak bilatzea. Hizkuntza praktika kontzientziaz egiten dugun euskaldunon azpiratzea bestelako menderakuntzekin gurutzatu dadin.
3. Kultur eskolak: Hizkuntzaren jabetza hutsetik landa, komunikazio sinbolikoa, afektiboan eta kultur komunikazioan jarriz lehentasuna.

Higa, arnasmuneak indartzea. Arnasmuneak, euskararen espazio hegemoniko horiek, herri euskaldunak dira edo izan daitezke, baina baita hori baino gehiago ere. Euskara hegemonikoa den bestelako espazio sozio-funtzionalak ere izan daitezke, eta izan behar dute: ikastetxeak, enpresak, elkarteak, eragile sozialak, administrazio-atalak, lagunarteak... Ez dago mugarik, euskara hegemonikoa den harreman-sareak edo espazioak askotarikoak izan daitezke eta izan behar dute, fisikoak nahiz birtualak.

Laga, herri kontakizuna birsortuko duen bulkada kulturala. Kulturgintzak eta euskalgintzak eskutik behar dute, euskarak ez baitu biziraungo kultur sistema beregainik gabe. Egun, euskaldunok, ez dugu aukera sendorik komunitate gisa identifikatzeko, haserretzeko, pentsatzeko, poztzeko, irakurketa sentikor bat adierazteko. Gure makinaria artistikoa isila eta ahula da. Askotan, hizkuntzak komunikazio tresna huts gisa hartzen dira, baina, soilik arrazoi praktikoei begiratuko bagenie, zer arrazoi izango genuke euskaraz egiteko? Batere ez. Helburua bada ahalik eta herritar gehienekin komunikatzea, aukeratu dezakezu gaztelania, frantsesa, ingelesa... Beste edozein hizkuntza, euskara baino lehen. Baina zergatik egiten dugu euskararen aldeko hautua? Euskara identitate eroale ere badelako. Euskarak ematen digu munduan izateko eta munduari begiratzeko leku eta modu bat, eta hori, nagusiki, kulturaren bidez ematen digu. Kulturak badu funtzio garrantzitsua herri kontakizuna birsortzearen espazio horretan: zer gara herri bezala? galderari erantzuteko. Gainera, alor horretan, uste dugu badaudela erreferente izan daitezkeen egitasmoak: Iruñeko Laba proiektua, Azpeitiko Kultur Mahaia edota Udalbiltzak martxan jarri duen Guretik Sortuak dinamika.

FREE THEM ALL

192

Borroka armatua bukatu eta 10 urtera oraindik espetxean dirauten presoek kopuruak, EPPKko 192 kide dira, kezkarri izaten jarraitzen du. Alabaina, kopuru hori bezain kezkarria edo are kezkarriagoa da preso horiei oraindik geratzen zaien zigor-urte kopurua. Denen artean geratzen zaien zigorra 2357 urtekoa baita, guztion ahaleginarekin espetxe legediaren salbuespenezko izaera eraisten ez badugu. Oraindik egiteko asko dagoela adierazten du datu horrek, eta mobilizazioak eta ekimenen biderkatzeak beharrezko izaten jarraitzen dutela preso bakoitzak eta beren senideek jasaten duten zama itzela arintzeko.

2357 zenbakiak, dena den, ezer gutxi esaten du bakoitzaren egoeraz. Zerbait adierazgarriagoa da esatea 16 euskal preso direla 7/2003 legearekin epaituta gehieneko 40 urteko zigorra dutenak, 73 direla 1995eko Kode Penalarekin epaituta gehieneko 30 urteko zigorra dutenak, 52 direla gehieneko 20 eta 25 urteko zigorra dutenak... XX. mendearen azkenean Kode Penalean egindako aldaketagatik erredentzio eskubiderik ez dute horiek guztiek.

Euskal preso politikoez beren kondenak noiz amaitzen dituzten galdetuko bagenu, ondorengo datak aurkituko

genituzke: 35 preso 2022aren eta 2025 tartean aterako dira aske; beste 45 ez dira aterako 2026-2030 bosturtekoa arte; 49ri ez zaie zigor bukaera iritsiko 2031-2035era arte; 16k zigorra betetzen jarraitu beharko dute 2036-2040ra arte. Eta, zigor bukaera urrunago dutenen artean, 6 egon litezke espetxean 2041-2044ra arte; 14k 2046-2050era arte egon beharko lukete; beste 7k, eta estraditatu ditza-keten beste 11k, mendearen erdia igaro eta 2051-2061era arte egon beharko lukete preso.

Baina, frantziar Estatuko zigorrak ez batzeko eta, beraz, zigorrak bikoizteko asmo maltzurrez espainiar Gobernu kontserbadoreek egindako lege iruzurra bertan behera geratuz gero, 50 euskal preso politikori berehala murriztuko litzaizkieke beren zigorrak. Berdin gertatuko litzaieke Estatu frantseseko espetxeetan dauden 11 euskal presori; jada espainiar Estatuan zigortuta daude edo zigortuko dituzte 11 presook, eta euro-agindu edo estradizio eskaerak dituzte.

Eta zer esan zigorrak bere osoan betearazteko 7/2003 legeaz! Premiazkoa da mendeku gosea eta sena maltzurren asetzeko egin eta onartutako lege hau ezabatzea. Itxaropen eskubidea ukatzen duen legea da, eta biziarteko espetxealdiaren ertzeraino eramán du dozenaka euskal preso politikoren etorkizuna.

Presoen egoera eta espetxetako helbideak

Urteko preso	10	Zigor batuketa	6
Larriki gaixo	+	Betetako zigorra	¾ ½ ¼
2. gradua	2	Gurasoa	22
3. gradua	3	100.2 artikulua	+

Etxean preso

Bizkaia

Foruria Zubialde, José Ramón	18	+	3	+70
Martín Hernando, Jesus María	20	+	3	¾

Gipuzkoa

Agote Cillero, Arkaitz	15	3	½		
Etxaniz Alkorta, Sebas	19	3	¾ +70		
Gogorza Otaegi, Aitzol	22	+	2	* 6	¾
Salaberria Etxebeite, Emilio	20	3	¾ +65		

Lapurdi

Haranburu, Frederic	32	+65	22
Barrios Santamaria, Mikel			

Nafarroa

Pérez Aldunate, Xabier	17	2	6	¾
------------------------	----	---	---	---

Euskal Herrian

CP Araba

Zaballa

Portillo San Miguel, 1. N-1, km. 340 01230, Langraitz (Araba)

Aranburu Sudupe, Gotzon	23	2	½	
Aretxabaleta Rodríguez, Liher	12	2	4	22
Armendariz Izagirre, Iñaki	24	2	¾	
Aramendi Jaunarena, Alaitz	14	2	6	
Barbarin Iurrebaso, Ainhoa	20	2	6	½
Bilbao Solatxe, Unai	20	2	½	
Cano Hernández, Pedro María	20	2	½	
Etxeberria Oiarbide, Jon	10	2	½	

García Arrieta, Garikoitz	12	2	½	
García Justo, Asier	20	2	½	
Goikoetxea Basabe, Arkaitz	15	2	¼ 22	
Gutiérrez Carrillo, Iñigo	15	2	¾ 22	
<i>Iparragirre Guenetxea, Marixol</i>	17	6	22	
Lauzirika Oribe, Karmelo	17	2	½	
Lebrero Panizo, Roberto	20	2	¾	
<i>Lizarraga Merino, María</i>	15	2	½ 22	
Loran Lafourcade, Gorka	17	2	¾	
López de Okariz, Unai	20	2	¾ 22	
López Anta, Ángel	15	2	6	½
Mardones Esteban, Asier	17	2	½ 22	
Markes Zelaia, Patxi	25	2	¾	
Martínez de Osaba Arregi, Igor	21	2	½ 22	
Miner Villanueva, Imanol	19	2	½	
Novoa Arroniz, Jose Mari	22	2	½ 22	
Orbe Sevillano, Zigor	17	2	¾	
Olaizola Baseta, Aitor	21	2	½	
Ordoñez Fernández, Josu	20	2	¾	
<i>Oña Ispizua, Josune</i>	17	2	½ 22	
Polo Escobes, Sergio	25	2	¾ 22	
Reta Frutos, Iñaki	6	+60	22	
Saenz Olarra, Balbino	15	2	6	½
Vidal Álvaro, Gorka	15	2	¾	
Vicario Setien, Gregorio	20	2	6	¼ +60
<i>Yañez Ortiz de Barron, Iratxe</i>	12	2	½	
Zabalo Beitia, Xabier	20	2	6	½
Zubiaurre Agirre, Jon	21	2	½	

Besarkada etxea Gasteiz

Iparragire Burgoa, Ibon	12	+	2	* ¼	22
-------------------------	----	---	---	-----	----

Aita menni ospitalea Arrasate

Arronategi Azurmendi, Kepa	24	+	2	* ¾	22
----------------------------	----	---	---	-----	----

CP Bizkaia

Basauri

Lehendakari Agirre 92 48970, Basauri (Bizkaia)

Crespo Ortega, Jon	15	2	¾	
Beobide Arza, Ibai	12	2	¼ 22	
Bilbao Gaubeka, Iñaki	25	2	¾	
Blanco Santisteban, Zigor	15	2	¾ 22	
Borde Etxelumendi, Joseba	19	+	2	¾ +60
Coto Etxeandia, Egoitz	15	2	¾ 22	
Fano Aldasoro, Unai	15	2	½ 22	
Franco Martínez, Bittor	15	2	¾ 22	
Garces Beitia, Iñaki	24	2	¾ 22	
Ginea Sagasti, Josu	15	2	¾	
Herrador Pouso, Juan Carlos	14	2	¾	
Herrera Vieites, Aitor	15	2	½	
Lerin Sánchez, José Ángel	15	2	½	
Lima Sagarna, Iker	15	2	¾	
Martínez Ahedo, Gorka	24	2	6	¼ 22
Maurtua Eguren, Aitzol	15	2	¾ 22	
Merino Bilbao, Guillermo	21	2	¾	
Pérez Zorriketa, Ugaitz	15	2	½	
Rodríguez López, Asier	11	2	½	
Subijana Izquierdo, Juan Carlos	17	2	6	½

CP Gipuzkoa

Martutene

Martutene katea, 1 20014, Donostia (Gipuzkoa)

Arrieta Llopis, Mikel	22	+	3	¾
Segurola Beobide, Joseba	15	3	¾	
Aragon Iroz, Santiago	20	2	½ 22	
Arregi Erostarbe, Joseba	30	2	6	¾ +70
Apeztegia Jaka, Karlos	25	2	¾ 22	
<i>Armendariz González Langarika, Lierni</i>	21	+	2	½ 22
Esnaola Dorronsoro, Aitor	11	2	½	
Fuentes Villota, Raúl	12	2	¼ 22	
<i>Gallastegi Sodupe, Lexuri</i>	15	2	6	¼
Goikoetxea Gabirondo, Andoni	8	2	¼	
<i>Jauregi Amondarain, Oskarbi</i>	20	2	½ 22	
Karrera Arenzana, Asier	21	2	22	
Larretxea Mendiola, Joanes	12	2	6	¼ 22
Lupiañez Mintegi, Gorka	14	2	½	
Martitegi Lizaso, Jurdan	13	2	6	22
Ramada Estevez, Francisco José	21	2	¾ 22	
San Argimiro Isasa, Mikel	15	2	¾ 22	
Troitiño Ciria, Jon	16	2	6	¼ 22
<i>Zaldúa Iriberrí, Itsaso</i>	15	22		

CP Pamplona I

Iruñea

Colina Santa Lucía katea, s/n, 31012 Pamplona (Nafarroa)

Gómez Ezkerro, Jesus María	20	3	¾ +60		
Arizkuren Ruiz, Josetxo	23	+	2	* 6	½ +60 22
<i>Arriaga Martínez, Josune</i>	11	2	½ +60		
Altable Etxarte, Jesús María	27	2	6	¾ +60	
Arruarte Santacruz, Garikoitz	17	+	2	¾	
Dorronsoro Malasetxerberria, J. M.	25	2	6	½ +60 22	
González González, Jon	15	2	6	¼ 22	
Otegi Unanue, Mikel	15	+	2	6	½
Portu Juanena, Igor	14	2	¼ 22		
Sola Campillo, Aurken	13	2	½		
<i>Mendizabal Mujika, Idoia</i>	15	2	6	¼ 22	

Espainiar estatuan

CP El Dueso

170 km - 1h 58'

Avenida de Berriá SN 39740 Santoña (Cantabria)

Atxurra Egurrola, Julen	25	2	6	¼ +60 22
Azurmendi Peñagarikano, Mikel	24	2	¾ 22	
Badiola Lasarte, Asier	12	2	¼ 22	
Borrero Toribio, Asier	12	22		
Castro Zabaleta, Manex	13	2	¼ 22	
<i>Etxebarria Caballero, Beatriz</i>	11	2	¼ 22	
Garate Galarza, Endika	15	2	6	½ +60
Goieaskoetxea Arronategi, Eneko	10	2	¼ 22	
Inziarte Gallardo, Juan Manuel	12	2	½ +65 22	
Karasatorre Aldaz, Juan Ramón	20	2	6	¼ 22

Telleria Uriarte, Angel
Makazaga Azurmendi, Xabier
Pedrosa Barrenetxea, Maite
Rubenach Roiz, Jon
Vallejo Franco, Iñigo
Zapirain Romano, Iñigo

5 ④ ② +60 22
20 ② ½
24 ② ¾ 22
16 ② ④
16 ② ④ ¼
11 ① ¼ 22

CP Logroño 170 km - 2h 07'

Calleja Vieja, 200, Apdo. 217
26006 Logroño (La Rioja)

Agirresarobe Pagola, Gurutz
Aiensa Laborda, Ibai
Aiensa Laborda, Mikel
Arzalluz Goñi, Asier
Alberdi Uranga, Itziar
Berasategi Eskudero, Ismael
Barreras Díaz, Oskar
Garitagoitia Salegi, Iurgi
Iragi Gurrutxaga, Harriet
López Resina, Dolores
Mujika Goñi, Ainhoa
Narvaez Goñi, Juan Jesús
Olarra Guridi, Jon
Olabarrieta Colorado, Iker
Sáez de la Cuesta, Alicia

11 ② 22
20 ② ½
20 ② ½
19 ② ④ ½ 22
8 ② ¼ 22
19 ② ④ ½
25 ② ¾
12 ② ④
21 ② ½ 22
20 ② ④ +70
19 ② ④ ¼
8 ② ¼ 22
19 ② ④ ½
17 ② ¾
21 ② ½ 22

CP Burgos 215 km - 2h 17'

Avenida Costa Rica, s/n Apdo.
253 09001 Burgos

Arri Pascual, Álvaro
García Aliaga, Aitor
Zubiaga Bravo, Manex
Zurutuza Sarasola, Jose Antonio

26 ② ④ ¾
20 ② ½
19 ② ④ ½ 22
17 ② ½

CP Zaragoza Zuera 245 km - 2h 54'

Autovía A-23, km. 328
50800 Zuera (Zaragoza)

Barrios Martín, José Luis
Izpura García, Mikel
Pérez Aristizabal, Eider
Solana Matarran, Jon Igor
Vila Mitxelena, Fermin

24 ② ¾
22 ② ¾ +60 22
21 ② ½ 22
21 ② ½ 22
11 ① ¼

CP Daroca Zaragoza 345 km - 3h 31'

Ctra. Nombrevilla, s/n
50.360 Daroca (Zaragoza)

Gallaga Ruiz, Javier
Gurtubai Sánchez, Sebas
Marcos Álvarez, Faustino

24 ② ④ ½ +60
19 ② ¾
11 ① ¼

CP Soria 260 km - 2h 57'

Calle Marqués del Saltillo n. 1
42004 Soria

Agirre Lete, Juan Luis

25 ② ④ ¾ 22

Ayestaran Legorburu, J. Lorenzo
Bravo Saez de Urabain, Zigor
San Sebastián Gaztelumendi, Mikel
Zelarain Ortiz, Oskar

12 ② ¼ +60
15 ② ½ 22
14 ② ¼
18 ② ④ ¼ 22

CP Dueñas La Moraleja

Palencia
310 km - 3h 03'

Carretera P-120
34210 Dueñas (Palencia)

Aginagalde Ugartemendia, Beñat
Besance Zugasti, Juan Carlos
Biezobas Arretxe, Jon Mikel
Cotano Sinde, Aitor
Eskudero Balerdi, Gregorio
Iglesias Chouzas, Juan Carlos
San Pedro Blanco, Jon Mirena
Mariñelarena Garziandia, Luis
Sarasola Yarzabal, Mattin

12 ② ④ ¼ 22
12 ② ¼
22 ② ④ ¼
18 ② ½
20 ② ½ +65
22 ② ④ ¼
28 ② ④ ¾ 22
20 ② ½
14 ② ¼

CP León Mansilla

370 km - 3h 36'

Finca Villahierro, 24210
Mansilla de las Mulas (León)

Elejalde Tapia, Fernando
Etxeberria Garaikoetxea, Jesús Mari
García Jodrá, Fernando
Guridi Lasa, Iñigo
Krutxaga Elezkano, Iñaki
Parot Navarro, Unai
Ugarte López de Arkaute, Diego

25 ② ¾
19 ② ½
20 ② ½
24 ② ½
21 ② ½
32 ② ¾ +60 22
18 ② ½

CP Asturias Villabona

385 km - 3h 57'

Finca Tabladillo (AS17-Avilés)
33480 Villabona (Asturies)

Agirrebarrena Beldarrain, Aitor
Egues Gurrutxaga, Ana Belen
Gartzia Montero, Ainhoa
López de la Calle Gauna, Alberto

19 ② ④ ½ 22
20 ② ½
18 ② ④ ¼
17 ② ④ ¼ +60

CP Topas Salamanca

460 km - 4h 32'

Ctra. N-630, km. 314
37799 Topas (Salamanca)

Gallastegi Sodupe, Orkatz
Viedma Morillas, Alberto

18 ② ½
20 ② ½

CP Madrid I Alcalá Meco

450 km - 4h 49'

Carretera de Alcalá Meco,
km. 4,5 28803 Alcalá de Henares
(Madrid)

Jauregi Espina, Jaione

1 +60

CP Madrid VII Estremera

520 km - 5h 06'

Carretera M-241, km. 5,750

28595 Estremera (Madrid)

García Gaztelu, Xabier

21 ④ ½ 22

Palacios Aldai, Gorka

18 ④ 22

Gallastegi Sodupe, Irantzu

23 ② ④ ½ 22

Frantziar estatuan

Mont de Marsan CP 260 km - 1h 51'

Chemin de Pémégan B.P. 90629
40.006 Mont-de-Marsan Cedex

Goienetxea Iragorri, Xabier

6

Sirvent Auzmendi, Ekaitz

13

Urbietia Alkorta, Josu

12

Lannemezan CP 330 km - 2h 18'

Chemin de la Plaine B.P. 166
65.307 Lannemezan Cédex

Abaunza Martínez, Javier

20

Agirregabiria del Barrio, Arkaitz

12 22

Aspiazu Rubina, Garikoitz

13 22

Esparza Luri, Iñaki

18 22

Esnal, Jakes

32 +70 22

Etxaburu Artetxe, Aitzol

12 22

Fernández Iradi, Ibon

18 + 22

Iriondo Iarza, Aitzol

13

Iruretagoiena Lanz, Luis

14 +65

Karrera Sarobe, Mikel

12 22

Maiza Artola, Gurutz

14 + +70

Martínez Bergara, Fermin

18 ¾ +65

Oiartzabal Txapartegi, Asier

20 22

Muret CD 425 km - 3h 08'

Route de Seysses B.P. 312
31.605 Muret Cédex

Parot Navarro, Ion

32 +70 22

Rennes CP 795 km - 7h 39'

18 bis, Rue de Châtillon B.P. 3.107
35.031 Rennes Cédex

Moreno Martínez, Itziar

11

Reau Sud Francilien CP 930 km - 8h 33'

CR 8 Lieu dit du Moulin à Vent
77.550 Réau

Lesaka Argüelles, Izaskun

9


Ozaeta Mendikute, Ainhoa

14

Sorzabal Díaz, Iratxe

6 22

Dispertsio eta urruntasunaren mapa



Kartzelakoak, Deserrikoak

Errepresaliatu politikoen berri

AZAROAK 6

SENIDEEN KOTXE-ISTRIPUA

Alberto Lopez de Lacalle Gauna preso gasteiztarraren bikoteak eta lagun batek kotxe-istripu arina jasan zuten Villabonako (385 km) espetxera bidean, bisita egitera zihoazela.

AZAROAK 12

BERRIRO MURRIZKETAK

Covid-19aren aurkako neurriak hartzerakoan preso eta senideen eskubideak errespetatzen dituzten protokolo eraginkorrak hartzeko eskatu die Lakuako Gobernuari eta Espetxe Erakundeari.

AZAROAK 15

VICARIO EBAKUNTZA-GELAN

Gregorio Vicario Setien Durangoko preso politikoa Burgosko espetxetik Leongo Ospitalera iritsi da, bypass koronario bat jartzeko ebakuntza egin ahal izateko. Vicariori urriaren 26an egin zioten proba hori Burgosko Ospitaleko Medikuntza Nuklearreko Departamentuan, eta euskal presoari hedadura handiko iskemia larria antzeman zioten.

Bere egoera larria zela eta, joan den azaroaren 3an kateterismo bat egin eta stent bat jarri zioten.

AZAROAK 16

4 EUSKAL HERRIRATZEEN IRAGARPENA

Espainiako Espetxe Zuzendaritzak lau preso euskalerriratzeko erabakia hartu duela aurreratu du. Bizkaiko espetxera Josu Ginea eta Iker Lima Leongo Mansillako espetxetik eta Juan Karlos Herrador Kantabriako espetxetik ekarriko dituzte, eta Santi Aragon Logroñokotik Gipuzkoako espetxera.

AZAROAK 24

ÓRALE, COMPADRE...

Ataramiñek, euskal preso eta errefuxiatuen sormen lanak argitaratzen dituen elkarteak, liburu berri bat aurkeztu du Bilboko Bira Kultur Gunean. Nobelak "Órale, compadre... ¡Nos vemos en Iparralde!" du izenburu, eta fikziozkoa den arren, euskal iheslariek pairatutako bizi-pen errealetan oinarritzen da. Jose Luis Eziolaza errefuxiatu politikoen eta Ataramiñe elkartearen arteko bitartekari lana da hau.

ABENDUAK 4

GINEA ETA LIMA BIZKAIAN

Josu Ginea preso larrabetzuarra eta Iker Lima Sagarna Galdakaoko preso gerturatu dituzte, Leoneko espetxetik (370 km) Basaurikora.

ABENDUAK 5

SANTI ARAGON MARTUTENEN

Santi Aragon Iroz preso politikoa iruindarra Logroñoko espetxetik (170 km) Gipuzkoakora hurbildu dute.

ABENDUAK 7

JUANKAR HERRADOR BASAURIN

Juan Karlos Herrador preso politikoa donostiarra El Duesoko espetxetik (170 km) Bizkaikora ekarri dute.

ABENDUAK 9

5 EUSKAL HERRIRATZEEN IRAGARPENA

Espainiako Espetxe Zuzendaritzak bost preso euskalerriratzeko erabakia hartu duela aurreratu du. Lexuri Gallastegi Zuerako espetxetik, Jesus Maria Novoa Mansillakotik, Zigor Blanco Asturiasetik eta Gokar Lupiañez eta Jon Troitino Logroño espetxetik hurbilduko dituzte.

ABENDUAK 14
“ETXERAKO KUNDA”
ETA “KAFE EXPRESO”

Presoak eta espetxeak abiapuntu izango dituzten bi irratsaio berriren emisioak hasi dira abenduan. Bi programen balizko entzuleak Euskal Herriko espetxeetara hurbildu dituzten eta hurbiltzen ari diren euskal preso politikoak izango dira, jakina, baina baita gainerako presoak eta presoaren senide eta gertukoak ere. Bi programek publiko orokorrenazako ia existitzen ez den irrati-eskaintza eskainiko dute, preso eta kartzelen inguruko egunerokotasuna alegia, eta horretarako, mikrofonoak espetxeei begira jarriko dituzte.

Naiz Irratian, espetxeetako erreallitatea hizpide eta ardatz izango dituen saioak, "Etxerako Kunda"k, joan den abenduaren 14an lehen-dabiziko emisioa izan zuen. Patxi Uranga preso-ohiaren gidaritzapean, asteartean emango da irratsaioa, gaueko 22:00etan.

Abenduaren 30ean bestetik, Hala Bedi Irratian emititu zuen "Kafe expreso" irratsaioaren lehenengo saio berezia. Aurrerantzean, ostegunero entzun ahalko da uhinetan, eguerdiko 15:00etatik aurrera. "Kafe expreso" Hego Euskal Herriko espetxe guztietatik entzuteko aukera bermatu nahi dute: Zaballan Hala Bediren bidez, Basaurin 97 irratia bidez, eta Iruñean Antxeta Irratiaren bidez. Martutenen Naiz irratia bidez entzungo da.

"Etxerako Kunda", bestalde, FM bidez entzun ahal izango da: Donostia 93.8, Urola 91.8, Goierri 102.2, Legazpi 94.6, Bilbo 92.2, Gernika 96.7, Durango 97.4, Gasteiz 91.5, Bortzirriak 103.1 eta Leitza 95.1 frekuentzietan. Iruñerrian Antxeta Irratiaren bidez emitituko da ostegunetan, arratsaldeko 15:00etan (106.7 FM).

ABENDUAK 16
MAITE PEDROSA DUESON

Maite Pedrosa Barrenetxea preso politiko ugaotarra Zuerako espetxetik (245 km) El Duesokora (170) lekualdatu dute.

ABENDUAK 22
ZIGOR BLANCO BIZKAIAN

Zigor Blanco Santisteban preso larrabetzuarra gerturatua izan da, Asturiaseko espetxetik (370 km) Bizkaikora.

194
ABENDUAK 23
IÑAKI ETXEBERRIA LIBRE

Iñaki Etxeberria Martin preso politiko iruindarra aske geratu da. El Duesoko espetxetik atera da 26 urteko zigorra bete ostean.

ABENDUAK 23
TROITIÑO ETA
LUPIAÑEZ GIPUZKOAN

Jon Troitiño Ciria preso politiko donostiarra eta Gorka Lupiañez Mintegi preso durangarra, Logroñoeko espetxetik (170 km) Gipuzkoakora hurbildu dituzte.

ABENDUAK 24
JOSE MARI NOVOA ARABAN

Jose Mari Novoa Arroniz preso politiko gasteiztarra Leongo espetxetik (370 km) Arabakora gerturatu dute.

ABENDUAK 29
ZAZPI IRAGARPEN

Espainiako Espetxe Zuzendaritzak zazpi preso euskalerriratzeko erabakia hartu duela aurreratu du. Pedro Cano eta Arkaitz Goikoetxea Logroñoeko espetxetik, Joseba Segurola eta Gregorio Vicario Burgosekotik, Gorka Martinez El Duesotik eta Maria Lizarraga eta Iñigo Gutierrez Aranjuezekotik. Segurola eta Gutierrez 3. graduari helduko dira.

193
URTARRILAK 5
BENGOA LIBRE BALDINTZAPEAN

Asier Bengoa Lopez de Armentia preso politiko gasteiztarra baldintzapeko askatasunean geratu da, 14 urteko zigorra bete ondoren.

URTARRILAK 2-3-4
UTZI GAITUZTE

Urte berriarekin, hiru egunetan jarraian, Xanti Iparragirre Perurena (88 urte), Tibur Elezkano

Barrenetxea (91 urte) eta Mertxe Romano Catalan (79 urte) hil dira, hiruak euskal preso politikoen gurasoak.

URTARRILAK 14
ZIGORRAREN BUKAERA

2021eko azarotik baldintzapeko askatasunean zegoen Olga Comes Arrambillet preso politiko iruindarrak zigor osoa bete du.

URTARRILAK 17
LEXURI GIPUZKOAN

Lexuri Gallastegi Sudupe preso politiko mutrikuarra Zuerako espetxetik (245 km) Gipuzkoakora hurbildu dute.

URTARRILAK 21
GORKA BIZKAIAN

Gorka Martinez Ahedo preso urduliztarra hurbildu dute El Duesoko espetxetik (170 km) Basaurikora.

URTARRILAK 21
“BERA” ZIUN

Francisco Jose Ramada Estevez "Bera" Irungo preso politikoa urgentziaz atera zuten Martuteneko espetxetik ambulanzia batean Donostiako Ospitaleko ZIU in-gresatzeko. Ondoeza izan eta erori egin zen "Bera", eta kolpe handia hartu zuen buruan. Erorikoaren ondorioz konortea eta pultsua galdu zituen. Bihotzekoa izan zuela edo iktusa izan zitekeela pentsatu zuten hasieran, baina ZIU bi egunez intubatuta eduki eta bizi-konstanteak egonkortu eta hobera egin zuela ikustean baztertu egin zuten bihotzekoarena.

URTARRILAK 23
IZADI, AMARIK GABE, ETXERA

Izadi bere amarengandik banandu dute. Hiru urte bete ditu gaur eta espetxetik irtenarazi dute. Bere ama, Maria Lizarraga, Aranjuezeko espetxean gelditu da.

URTARRILAK 24
IÑIGO ETA MARIA ARABAN

Iñigo Gutierrez Carrillo preso bizkitarra hurbildu zen autogobernua Aranjuez espetxetik Zaballako

CISera. Hurrengo egunean, Maria Lizarraga hurbildu zuten Aranjuez espetxetik Arabako Cpra.

URTARRILAK 25
ZAZPI IRAGARPEN
BERRIAK

Espainiako Espetxe Zuzendaritzak jakitera eman du zazpi preso Euskal Herriratuko dituztela. Zehazki nora ekarriko dituzten Lakuako Gobernuak erabakiko du. Gotzon Aranburu Dueñasetik, Lierni Armendariz eta Imanol Miner El Duesotik, Bittor Franco eta Xabier Zabalo Logroñotik, Asier Garcia Justo Asturiasetik eta Iñaki Reta Soto del Realetik ekarriko dituzte. Soton ez da euskal presorik geratuko.

URTARRILAK 28
HIRU ABERRIRATZE

Periferiako kartzeletatik hiru preso hurbildu dituzte Arabako espetxera: Gregorio Vicario Setien preso durangarra Burgosetik lekualdatu dute, Algortako Arkaitz Goikoetxea Basabe eta Hernaniko Pedro Cano Hernandez, berriz, Logroñoeko espetxetik.

URTARRILAK 29
ZIGOR AMAIERA

2020ko apiriletik baldintzapeko askatasunean zegoen Gorka Fraile euskal preso politikoari behin betiko lizentziamendua eman diote.



OTSAILAK 10
JON ESPETXERATUA

Atzera Basauriko espetxean sartu dute Jon Crespo. Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralak balio gabetu dio Espetxeetako Idazkaritza Orokorrak 2021eko irailaren 29an emandako 3º gradua.

OTSAILAK 14
IÑIGO ESPETXERATUA

Espetxean sartu dute Iñigo Gutierrez Carrillo Algortarra. Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralak balio gabetu dio. Espetxeetako Idazkaritza Orokorrak emandako 3º gradua.

OTSAILAK 15
MIKEL OTEGI OSPITALEAN

Otsailaren 11an Mikel Otegi urgentziaz ospitaleratu zuten Iruñean. Ospitalean, positibo eman zuen COVID-19an, eta koronabirus gaixoak dauden solairura eraman zuten. Gaitza gainditu ondoren, beste solairu batera eraman zuten, eta asteburuetan egindako probetan oinarrituta, biriketako tuberkulosia diagnostikatu diote. Lehendik ere, larri gaixo dauden hemeretzi euskal presoen zerrendan dago Mikel Otegi "Sindrome koronario akutu bat izan zuelako".

192
OTSAILAK 17
XABIER ATRISTAIN ASKE

Xabier Atristain aske utzi dute behin-behinean eta Gipuzkoako espetxetik atera da. Espainiako Auzitegi Nazionalak Atristainen zigorra etetea erabaki du, Gorenak Estrasburgoko sententziaz ebatzi artean. Estrasburgoko Auzitegiak ebatzi zuen Espainiak "prozesu justu eta ekitatezkoa" izatea eragotzi ziola euskal presoari, ez baitzion inkomunikazio aldian konfiantzazko abokatu bat aukeratzeko utzi.

MENDIKO MOTXILA 40 L

EGIN EZAZU ZURE EROSKETA HELBIDE HONETAN ETA ETXERA BIDALIKO DIZUGU
WWW.SERIGRAFIA.EUS/SHOP/ETXERAT

EDO ATERA ARGAZKIA QR KODEARI ETA DENDARA ERAMANGO ZAITU

Euskal Preso eta Ihesari Politikoaren Senide eta Lagunen Elkartea

Ongi etorrien harira

*"Argi esaten dugu
gure gogoa dela
sufrimendu oro
arintzea eta aukera
berriak zabaltzea,
zauriak sendabidean
jartzea eta euskal
herritarren artean
elkarbizitza
sendotzea"*

Kartzelaratzea samin eta atsekaberako moti-boa den bezala, aleratzeta, espetxetik irte-
tea, bizipen pozgarria da presoarentzat eta
presoaren senide eta hurbilekoentzat. Ez da,
beraz, harritzekoa momentu horretan poza sentitu eta
erakustea bai kaleratzen denak berak eta bai presoak noiz
kaleratuko zain eta itxaropenetan egon direnek.

Baina poz horren edozein adierazpen beste batzuentzat umiliazio gisa ulertu dute batzuen, eta ulertu nahi izan dute beste askok. Sektore batzuek sarritan norabide edo zentzu horretan eman diete dimentsio publikoa euskal preso politikoak kaleratu diren bakoitzean eskaini zaizkien harrera eta ongi-etorriari. Instituzio ezberdinetatik eta epaitegietatik ere gai hori argudiatu izan dute askotan presoaren ibilbide juridiko-penitentziarioa mantsotzeko edota ezer ez mugitzeko. Orain, gai horren inguruan gogoeta egin eta zenbait hilabetez eztabaidatu ondoren, afera hori kalapita politiko eta sozialerako aitzakia izan ez dadin, kaleratzen diren euskal presoari eskaintzen zaizkien harrera eta ongi-etorriari beste izazera bat ematea erabaki du EPPK-k.

Kolektiboaren erabaki hori gutxiesten saiatu dira zenbait komunikabide eta iritzi publiko, espero zitekeen moduan. Iritzi eta adierazpen horiek gorabehera, ikusi behar da harrera eta ongi-etorri horien aurkako jarrera eta adierazpenak noraino ziren zintzoak edo noraino ziren kontrakotasun soilerako aitzakia perfektua. Biktimen zenbait elkartek eta beste ahots batzuek jada adierazi baitute ez dela nahikoa, eta haien zat beti izango da gutxi, beti ez-nahikoa, eta presoaren eskubideen aldeko edozein aldarrikapen beti izango da umiliazioa. Hala erakutsi zuten urtarrilaren 8ko manifestazioak debekatzeko eskaera egin zutenean, edo iazko irailean Arrasaten Unai Parot presoaren eskubideen defentsan egin asmo zuten mobilizazioaren aurka asaldatu zirenean... Argi dago sektore batzuek espazio publiko orotatik desagerrarazi nahi dutela presoaren eskubideen aldeko edozein aldarrikapen; euskal preso politiko bakoitzaren eskubideak errespetatu ditazatela eskatzea

"Gure senide, lagun eta kideei eta euskal gizarteari adierazten diegu kaleratzean egiten zaizkigun harrerak hurkoen artean eta era pribatu eta diskretuan jaso nahi ditugula aurrerantzean"

legez kanpo eta espazio publikotik kanpo utzi nahi dute. Euskal presoek eskubiderik ez izatea eta betirako espetxean jarraitzea nahi dute zinez. Hori dute helburu, eta ongi-etorri publikoen aurkako jarrera aitzakia bezala erabili dute soilik.

Dena den, euskal preso politikoen keinua ez doa mendekua eta ezinikusia elikatzen duten haiei zuzendua, elkarbizitza eta kontzentsu soziala bilatuz lan egin nahi duten haiei bideratua baizik.

Hona hemen, hitzez hitz, EPPK-k argitaratutako agiria

Agiri honen bidez, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak (EPPK) gure senide, lagun eta kideei eta euskal gizarteari adierazten diegu kaleratzean egiten zaizkigun harrerak hurkoen artean eta era pribatu eta diskretuan jaso nahi ditugula aurrerantzean, orokorrean azken hilabeteetan hasia den bidetik jarraituz.

Hainbat eragile eta alderdik bizikidetzaren ordezkariak konfrontazioa bilatzen dute arduragebeki. Ez dugu inondik inora polemika antzurik elikatu nahi; arduratsu izateko eta modu eraikitzailean jokatzeko borondatea dugu. Ez dugu amore emango hartutako bidean jarraitzeko orduan; jokabide ezkorrenetan eroso sentitzen direnen aitzakiak gero eta nabarmenago geratzen ari dira euskal jendartean, beraien eragina itzaltzen joan den heinean batez ere.

Aurten bete dira hamar urte borroka armatua behin betiko alde batera geratu zenetik. Bakea galarazi eta inposizioa betikotu nahi dutenek, baina, aurrerapauso bakoitza blokeatu edo sabotageatu nahi izan dute ordutik, mendekua bilatuz eta gatazka desitxuratuko lukeen kontakizun iruzurtia inposatu gogoz. Garaile eta garaituen errelatoa elikatuz.

Badira, harago, ongi etorri publikoen harira samina sentitu dutela zintzoki azaldu duten pertsonak. Gure

iraganeko militantzian egindako ekintzen ondorioz kalte-tetutako pertsonak dira eta minduta sentitu daitezkeela ulertzen dugu. Urte luzez eta baldintza ezin gogorragoetan kartzelan egon den presoak kalera irteteen hurkoen besarkada jasotzeko eskubidea duela onartu arren, harrerak-ekitaldi publikoek mina eragiten dietela adierazi dute. Argi esaten dugu gure gogo delako sufrimendu oro arintzea eta aukera berriak zabaltzea, zauriak sendabidean jartzea eta euskal herritarren artean elkarbizitza sendotzea.

Beraz, espainiar eta frantziar Estatuetakoko espetxeetan dauden gure kideen artean kontsulta egin ondoren, EPPK-k, lehendik abiatutako beste urrats eta hartutako erabaki batzuei jarraipena emanez, egoki irizten dio aske geratzearen gure poza espetxe atarian zain ditugunekin elkartzean edota era diskretuan hartzen gaituztenekin partekatzea. Aurrerantzean, harrerak soilik hurkoen giroko esparru pribatuan jaso nahi ditugu.

Erabaki hau Euskal preso politikook bizikidetzari, bakeari eta gurea eta gure senideena ez ezik besteen sufrimendua ere aitortzeari egiten diogun ekarpen indibidual eta kolektiboa da.

Azken urteotan egindako urratsek hortzi-muga argia izan dute aurreko zikloa gainditzeko bidean. Gure nahia hori dela adierazten diegu ezkerreko militante independentistei; haiekin batera goaz geu ere, etorkizuneko erronkari helduz, Euskal Herriaren askapen prozesuan bide eta aukera berriak irekitzera. Bakea eta askatasuna lortu eta maila berean ezarri arte.

Batasuna, elkartasuna eta herriarenganako lotura!
Jo eta ke, irabazi arte!

Euskal Herria bihotzean, 2021eko azaroan

Euskal presoak eta iheslariak etxera!
Amnistia! Independentzia!



GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA
HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES

inbertsio +

Osasungintza publikoa

Kasik bi urte pasatu dira Covida guregan iritsi zenetik. Hasiera hartan, agintari publiko nagusiek esan ziguten prestatuta geundela izurriteari aurre egiteko, baina pandemiaren garapenak laster utzi zuen agerian hitz horien ipurdia. Hamarkadetako neoliberalismoak gure osasungintza publiko ezberdinetan (herri ukatuaz gain, herri zatitua ere bagarelako) ondorio larriak eragin zituen. Osasungintzan inbertitzen ez denean edota osasun langileak hezi, formatu eta kontratatzen ez direnean, poliki-poliki herritarron funtsezko eskubidea den zerbitzu publikoa murrizten, prekarizatzen eta, oro har, jausten hasten da.

Pandemiak berehala jarri zuen agerian osasun krisia. Eta gurean, osasungintzaren eskuduntza duten agintariak, jarrerak gora-behera, inprobisatzen aritu dira etengabe. Inprobisazio horretan, lehen erabakia ardurak alboratzea eta indibidualizatzea izan da; osasungintza publikoaren egoera tamalgarriaren

ardura beraiena ez balitz bezala aritzea, alegia, urteetako murrizketak beraien erabaki politikoa izan ez balira bezala jokatzeari, izurritearen bilakaera kaskarra herritarron arduragabekeriari leporatuz. Eta bigarren erabakia izan da pandemiaren kudeaketa neurri murriztaileetara mugatzea.

Neurri eta eztabaida nagusiak ez dira izan osasungintzan zenbat diru, non eta nola inbertitzen dugun, baizik-eta zenbat pertsona gaixosar daitezken, non eta nola. Zaintza lehenetsi zitekeen eta, horretarako, neurri murriztaileez gain, bestelako hainbat neurri hartu, hala nola, arakatzaile kopurua handitzea; antigeno auto-testak dohainik eskaintzea; herritar xumeek konfinamenduak bete ahal izan ditzaten beharrezko baliabideak eskaintzea; lehen arreta zein, oro har, osasun sistema publikoa indartzea; osasungintzako langileen lan baldintzak duintzea eta abar... Bestelakoa izan da erabakia, eta, horren ordez, neurri murriztaileetara mugatu dute beren ez-kudeaketa.

Hemen, bizi ditugun krisi anizkoitzei (osasuna, zaintza, ekologikoa, ekonomikoa) aurre egiteko sektore publikoaren eta zerbitzu publikoen garrantzia dago ezbaian

Neurriak

Osasun krisiaren aurrean, zaintza kolektiboa eta bizitzak erdigunera:

- » **Txertoen patenteak indargabetu** daitezela eta guztion osasuna gutxi batzuen negozioaren aurrean lehenetsi dadila.
- » **Informazioa eta prebentzioaren** aldeko jarrerak eta politikak **bultzatu** daitezela.
- » **Aztarnariak kontratatu** eta haien lana egiteko behar dituzten baliabideak bermatu.
- » **CO2 neurgailuen instalazioa** eta musukoaren erabilera sustatu barrualdeetan.
- » **Antigeno testak doan** edo errentaren arabera banatzea.
- » Osasun krisi baten aurrean bagaude, **osasunean inbertitu** beharra dago: **mediku, erizain eta garbitzaileak kontratatu**.
- » Pandemia **buru osasunean** eragiten ari den arazoei aurre egiteko osasun **zerbitzuak indartzea**.
- » **Sektore kaltetuenentzat baliabideak** (ekonomikoak zein bestelakoak) bermatu behar dira.
- » **Garraio publikoen maiztasuna handitzea** masifikazioak ekiditeko.
- » Zentzu horretan, **klase, genero eta arraza faktoreak determinanteak dira pandemiak pertsona bakoitzarengan dituen ondorioetan**. Hartzen diren neurriak hartzen direla, faktore horiek haintzat hartu beharra dago, eta pandemiaren kudeaketa sozialki justua egiten dela bermatu.
- » **COVID-ak krisiak azkartu ditu** (ekologikoa, zaintzarena, ekonomikoa eta soziala) eta aldaketa handien garaian murgildu gaitu. **Herri gisa eta demokratikoki ekin** behar diogu egoera honi, asko dugu jokoan.

Ezker independentismoak hasieratik asmatu zuen zaintza kolektiboaren eta osasungintzaren aldeko aldarriarekin. Sortuk berak eta EH Bilduk konfinamenduaren eta zaintzaren aldeko deia luzatu zuen pandemiaren lehen egunetan. Unerik gogorrenetan, herriz herriz eta auzoz auzo, gure herrian zaintza sareak antolatu behar izan ditugu eta hala ere milaka eta milaka dira epe honetan joan zaizkigun herritarrak. Eta hau dena, aipatu bezala, pandemiari aurre egiteko prestatuta geundela esaten ziguten bitartean. Eta horrela iritsi gara, jada, seigarren olatua deitzen den honetara.

Bat gutxi balitz bezala, sarri bigarren erorikoa behar izaten dugu hirugarrenez toki berean ez zangozabatzeko. Bada, gure agintarien kasuan, bostekin gutxi balitz bezala, seigarren olatuaren aurretik, duela bi hilabete osasungintzetako milaka langile (erizainak, aztarnariak...) bidali zituzten langabeziara, okerrera pasatuta zegoelako ustean. Seigarrenak beraz, lehen olatuak bezain “prestatuta” harrapatu gaitu. Eta ez, dagoeneko “errua” ez da pandemiarena, beraien politikena baizik. Osasungintzan behar bezalako inbertsiorik egin ez izanaren ondorioa da.

Zentzu horretan, jakin bazekiten Covid pasaporteak ez zela eraginkorra kutsatzeak ekiditeko; areago, zenbait unetan segurtasun sentsazio faltsua ere eragin zezakeela bazekiten (Covid pasaporteak txertaketa sustatzeko baino ez zuen balio, eta denbora-tarte mugatu batean; hortik aurrera eraginkor izateari uzten zion). Musukoa kalean derrigortzea eraginkorra ez zen bezala. Edonola, bata zein bestea oso tresna eraginkorra egiten ari

zaie beste helburu baterako: pandemiaren kudeaketa lotsagarria eta osasungintza publikoaren egoera tamalgarria ezkutatzeko kezko kortina izan da Covid pasaporteak.

Covid pasaporteak askatasun indibidualean jartzen du arreta soilik. Zaintzaren paradigmak, ordea, osasun eta askatasun kolektiboak ditu helburu eta abiapuntu. Une honetan jada Covid pasaportearen eskaera EAEn indargabetu dute epaileek, baina osasungintzaren egoera kaxkarrak hor dirau.

Urtarrilaren 23an eta osasungintzan diharduten sindikatu guztiek deituta manifestazio jendetsuak burutu ziren EAeko hiru hiriburuetan. Deialdi zabala eta erantzun bikaina. Garrantzi handiko mobilizazioak izan dira. Hemen jokoan dagoena asko eta handia da. Hemen urteetako politika neoliberalak hezkuntza edota osasungintzan izan dituzten ondorioak agerian uzteko aukera jokatzeko ari da. Hemen, bizi ditugun krisi anizkoitzei (osasuna, zaintza, ekologikoa, ekonomikoa) aurre egiteko sektore publikoaren eta zerbitzu publikoen garrantzia dago ezbaian.

Hemen, kapitala eta bizitzaren arteko borroka honetan, sektore publikoak noren alde egingo duen dago ezbaian. Hemen eta orain, borroka horiek guztiak gure herrian nola emango diren eztabaidatzen eta lehiatzen ari da. Hemen, gainera, eraldaketa sozial eta politikorako gehiengoa dago, eta erronka hauetan lehiatzeko indar harreman egokiak ditugu.

Azken hilabeteetakoak

Ekimenak, mobilizazioak, eragileak, instituzioak...

Euskalgintza

AZAROAK 15

FUNTZIONARIOAK EUSKARAZ

LAB, ELA eta Steilas sindikatuek Nafarroako Hezkuntza Departamentuko funtzionario berrien prestakuntza euskaraz izatea aldarrikatu dute eta, oro har, euskaraz eskaintako prestakuntzak dituen gabeziak salatu dituzte.

ABENDUAK 6

EUSKARAREN ERREPUBLIKA

Ehunka pertsonak hartu dute parte Euskal Herrian Euskaraz-ek Durangon deitu duen mobilizazioan. Deia luzatu zien eragile politiko, sindikal eta sozial independentistoi, elkarrekin esertzeko eta, adostasunak bilatuz, guztion artean Euskararen Errepublikara, Euskal Errepublikara, eramango gaituen gehiengo sozial independentista egituratzeko.

ABENDUAK 16

EUSKARAZ HEZI, BERDINTASUNEAN HAZI

Gasteizko Europa Jauregian egindako agerraldian, hezkuntzako eragile nagusiek, euskalgintzak eta gehiengo sindikalak EAeko hezkuntza hitzarmenari lotuta euskararen eremuan jaso beharrekoa zehazteko ekarpena egin dute, eta euskarazko eredu orokortzearen aldeko adostasun historikoa sustatu dute, "Euskaraz hezi, berdintasunean hazi" izeneko adierazpenean jasotakoa.

URTARRILAK 14

BAXOA ETA BREBETA EUSKARAZ

Seaskak eta Azterketak Euskaraz kolektiboak deituta, protesta eguna burutu dute Baionan, Donibane Lohizunen, Kanbon eta Donapaleun. Baxoa euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatuz ehunka lagun bildu dira mobilizazioetan.

OTSAILAK 2

HAUR ESKOLETAN EUSKARAZ

Familiak osatutako HE Gurasoak plataformak Iruñeak euskarazko haur eskolen eskaintza zabaltzeko eskatu du 'Haur eskoletan hezi, bizi eta lan' lelopean Nafarroako Parlamentuaren aurrean egindako elkarretaratzean.

OTSAILAK 4

AZTERKETAK EUSKARAZ

Baionan ehunka pertsona bildu dira baxoa eta brebeta azterketak euskaraz egin ahal izateko eskubidea aldarrikatzeko. Seaskako presidenteak borroka hau hasi baino ez dela egin adierazi du, eta bai irakasleek baita ikasleek ere, brebeta frantsesez zuzentzeari ukatzeagatik zigortutako irakasleei sostengua adierazi zieten.



OTSAILAK 5

EUSKARAZ BIZITZEAREN ALDE, BATUZ

Euskalgintzaren deiari erantzunez, ehunka pertsona batu dira Laudion Gasteizko epaile batek Audioko Udaleko lanpostuen hizkuntza-eskakizunen inguruan emandako epaiarekin desadostasuna agertzeko eta hauei aurre egiteko batasuna aldarrikatuz.



OTSAILAK 10

EUSKARA GUTXIESTEARI EZ

ELA, LAB eta Steilasek protesta egin dute Nafar Gobernuako egoitzaren aurrean, euskararen zonifikazioarekin bukatzeko eskatuz eta nafar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuko dituen dekretu baten alde.

Hezkuntza

ABENDUAK 16

LOSU ETA ELKARBIZITZA LEGEEI EZ

Ernaik eta SEPCek, Herrialde Katalanetako Ikasle Sindikatuak, mobilizazioak egin dituzte Unibertsitate Ministro espainiarra den Manuel Castellsek proposatutako LOSE legearen aurka planto egiteko asmoz. Euskal Herriari dago-

kionez, Leioa, Gasteiz eta Ibaetako kanpusetan izan dira protestak.

URTARRILAK 13

GREBA IPAR EUSKAL HERRIAN

Irakaskuntzan osasun egoeraren aurreko protokoloa salatzeko greba egin dute Ipar Euskal Herriko eskola eta ikastoletan. Baionan manifestazio jendetsua egin dute.

Migrazioak eta arrazakeria

AZAROAK 22

EUSKAL HERRIA, HARRERA HERRIA EDO HILERRIA

Irungo Harrera Sareak eta Ipar Euskal Herriko harrera taldeek deituta, Bidasoa ibaia gurutzatzean azken hildako migratzailearen heriotza salatu dute Santiago zubian eginiko giza-kate argitsu batean. Hego zein Ipar Euskal Herriko instituzioei eta erakundeei erantzukizunez jokatzeko eta behingoz beharrezko diren neurriak har ditzaten galdegin diete, heriotza gehiagorik ez gertatzeko.

ABENDUAK 18

GURE HERRIA = ELKARTASUNA

La Cimade, Etorquinekin, Les Bascos eta Diakite elkarteek migranteekiko elkartasunez mobilizazioa antolatu dute Baionan. Europa mailan bizi den migrazio krisiak Euskal Herrian, eta bereziki Bidasoaren inguruan bizi den egoera larria salatzeaz gain, migranteei laguntza eskaintzen dien jendearekiko presioa eta trabak handitzen ari direla jakitera eman dute.

Lan eta bizi-baldintzak

AZAROAK 3

LAN ISTRIPUEN SALAKETA

ELA, LAB, ESK, Steilas, CGT, Hiru eta EHNE sindikatuek elkarretaratzeak egin dituzte azaroan zehar, lan istripuetan hil diren 3 langileen heriotzak salatzeko. Donostian bi lan istripu ez-traumatikoen ondorioz langile bi hil dira eta Portugaleten lan istripuan beste batek bizia galdu du.

AZAROAK 20

ESPEKULAZIOARI EZ

Etxebizitza eskubidearen alde eta espekulazioaren kontra, 8000 bat lagunek parte hartu dute Baionan egindako manifestazioan. Ipar Euskal Herriko ezkerreko alderdi guzietan, sindikatu nagusiek eta eragile sozial andanak babestu dute mobilizazioa.



AZAROAK 25

"JUSTIZIA" PATRIARKALA

Senar ohiaren bortizkeria pairatu ondoren, Justiziaren biolentzia pairatu behar izan du Joaquin Arrigorriagako bizilagunak. Gaur, epaileen aginduz eta Ertzaintzaren indarraz, bere etxetik bota dute, eta pisua tratu txarrak emateagatik kondenatutako gizonaren esku utzi. Auzokideak kaleratzea galarazten saiatu dira.

ABENDUAK 2

LAN ISTRIPUEN SALAKETA

ELA, LAB, ESK, Steilas, CGT, Hiru eta EHNE sindikatuek elkarretaratzeak egin dituzte abenduan zehar, lan istripuetan hil diren 2 langileen heriotzak salatzeko. Bergarako Fagor Ederlanen lan istripu ez-traumatiko batean langile bat eta Cadreitan lanera zihoala auto istripu batean beste langile bat hil dira.

ABENDUAK 20

MURRIZKETARIK EZ

Berri Otxoak kolektiboak elkarretaratzea egin du Lakuako Gobernuak Bilbon duen egoitzaren aurrean, 2022ko aurrekontu autonomikoen murrizketa sozialak dakartzatela salatzeko, aldi berean, obra faranoikoetan eta gastu militarrean ehunka milioi euro xahutzen diren bitartean.

ABENDUAK 20

GAZTEONTZAKO BIZITZA DUINAK

Ernai gazte antolakundeak protesta ekintza burutu du Iberdrolaren dorrearen atarian. Elite ekonomikoek gazteen miseria haien negozio bihurtu dutela salatu dute.



ABENDUAK 29

PIZTU ESKUBIDEAK

Inor ez Kale gorrian ekimenak eta Araba Bizirik! plataformak deituta manifestazioa egin dute Gasteizen, energiaren garestitzeak eragiten duen prekarietatea gaitzetsi eta auzi honetan ardura duten Lakuako Gobernuak eta Gasteizko Udalak pobrezia energetikoaren kontrako neurriak ez dutela hartu salatzeko.

URTARRILAK 5

LAN ISTRIPUEN SALAKETA

ELA, LAB, ESK, Steilas, CGT, Hiru eta EHNE sindikatuek elkarretaratzeak egin dituzte urtarrilean zehar, lan istripuetan hil diren 5 langileen heriotzak salatzeko. Heriotzak Barakaldon, Gasteizen, Ikaztegiatan, Pipaonen eta Irunen gertatu dira.

URTARRILAK 5

KALE GORRIAN HIL

"Beste Bi" etxerik gabeko pertsonen aldeko plataformak mobilizazioa burutu du Bilbon, kale gorrian bizi zen eta hil berri den emakumearen heriotza salatzeko. Porrot kolektibo honen aurrean, instituzioen konpromisoa eskatu dute.



URTARRILAK 13

LEHEN MAILAKO ARRETA INDARTU

ELA, Satse, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deituta elkarretaratzeak egin dituzte Osakidetzako langileek Araba, Bizkai eta Gipuzkoako osasun zentroetan. Lehen mailako arretaren egoera jasanezina dela salatu dute, eta benetako eta berehalako konponbideak eskatu dituzte.

URTARRILAK 15

PENTISIO DUINAK

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak deituta, milaka lagunek hartu dute parte Bilbon, Gasteizen, Iruñean, Donostian, Ondarroan, Tafallan, Altsasun eta Lizarran egindako mobilizazioetan. Gehiengo sindikalaren eta gizarte eragileen babesarekin, pentsio duinak eskatu eta indarrean jarri berri den pentsio sistema gaitzetsi egin dute.



URTARRILAK 23

OSASUNGINTZA PUBLIKOAREN ALDE

ELA, Satse, LAB, CCOO, UGT sindikatuek, EH Bildu, Elkarrekin Podemos eta Ezker Anitza alderdi politikoek, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak eta Bizkaiko Medikuen Elkargoak deitutako mobilizazioetan milaka lagunek hartu dute parte. Gasteizen, Bilbon eta Donostian egindako manifestazioetan Osakidetzak duen egoera jasangaitza salatu dute, eta neurriak hartzeko eskatu diote Eusko Jaurlaritzari.

URTARRILAK 27

ERASORIK EZ!

EZ LANTOKIETAN, EZ INON!

ELA, LAB, STEILAS, ESK, EHNE eta HIRU sindikatuek elkarretaratzea egin dute Sopolako udaletxearen aurrean enplegatzaile batek etxeko

langile bat bortxatu duela salatzeke. Bertan, etxeko enpleguan ematen den klasismoa, arrazismoa eta matxismoa salatu dituzte.

URTARRILAK 31

ETXEGABETZERIK EZ

Biolentzia matxistaren biktima den emakume bat eta bere hiru seme-alabak etxetik bota ditu Ertzaintzak, Alokabide Eusko Jaurlaritzaren alokairurako sozietate publikoaren eskaerari bide emanez. Etxegabetzea salatzeke Argitan eta Berri Otxoak elkarteek burutu duten elkarretaratzea etxe aurrean.

OTSAILAK 2

LAN ISTRIPUEN SALAKETA

ELA, LAB, ESK, Steilas, CGT, Hiru eta EHNE sindikatuek elkarretaratzeak egin dituzte otsailean zehar, lan istripuetan hil diren 2 langileen heriotzak salatzeke. Heriotzak Olaberrin eta Barakaldon gertatu dira.

OTSAILAK 6

ZALDIBAR ARGITU

Zaldibarko luiziaren bigarren urteurrenean ehunka lagunek ardurak argitu daitezela eskatu dute Ermuan egindako manifestazio batean. Zaldibar Argitu plataformak eginiko deialdiarekin dozenaka elkarteak egin dute bat.



Nazio eraikuntza eta prozesu independentista

AZAROAK 14

EUSKAL HERRIAN MUGARIK EZ

Zuberotar eta nafar herritarrek "Inposaketarik ez. Mugarik ez Euskal Herrian" lelopean ekimena egin dute Larraineko lepoan. 80 bat lagun bildu dira bertan urte hasieraz geroztik Pirinio Atlantikoen

Prefeturaren aginduz itxita dituzten pasabideak irekitzeko aldarrikatu.

AZAROAK 17

ERRIGORA

235.000 euro bideratuko ditu Errigorak, berriz ere, Nafarroako erdialdeko eta hegoaldeko euskalgintzara, azken kanpainan banatutako 15.500 saskiei esker. Ekarpen honi esker, zonaldeko ikastolek eta AEK-k, bizirauteaz gain, bestela posible ez liratekeen aurrerapausoak ematen jarraitu ahal izango dute eta Sortzenek sare publikoan D eredu indartzeko lanean jarraitzeko baliabideak izango ditu.



AZAROAK 20

LORTU ARTE

"Aske eta berdinen Euskal Herria lortu arte" lelopean, 48.000 pertsonak hartu dute parte EH Bilduk deitutako manifestazioan. Euskal errepublika feminista, sozialista, ekologista, euskalduna eta burujabea helburu, erresistentziatik askatasunera jauzi egin eta bloke historiko bat osatzeko premia azpimarratu dute.

ABENDUAK 5

ESPANIAR KONSTITUZIOA, HERRIEN KARTZELA

Llotja del Mar-eko alderdiek, EH Bilduk, ERCK, PDCat-JxCatek, CUPek eta BNGk, Konstituzioaren Egunaren bezperan adierazpen bateratu bat argitaratu dute. Agortua dagoen eta zilegitasunik ez duen Konstituzio baten aurrean, herrien autodeterminazio eskubidean oinarritutako eredu bat eskatu dute.

ABENDUAK 18

ARANTZAZUKO ADIERAZPENA

Politikagintzako, sindikalgintzako, unibertitateko, kulturgintzako,

euskalgintzako edota hedabideetako dozenaka pertsonalitatearen babesarekin, Gure Eskuk Adierazpena egin du Arantzazun. Eragileei dei egin diete etorkizuna erabakitzekeo prozesu batean inplika daitezen; erakundeei, herritarren borondata aintzat hartuz, erabakitzekeo eskubidea instituzionalizatu eta lege bilakatzeko konpromisoa har dezaten; eta herritar guztiei herri gogoia errealitate bilakatzeko lan egin dezaten deia luzatu diete.



Feminismoa

AZAROAK 11, 12, 13

MARXFEM JARDUNALDIAK

Transform! Europe, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Iratzar Fundazioa, Critical Theory Bilbo-Barcelona (BIBA CT), Berliner Institut für Kritische Theorie (InkriT), Rosa Luxemburgo Fundazioa eta ParteHartuz taldeek antolatuta, hiru egunez hamaika txokotako pentsalariak bildu ditu Nazioarteko IV. MarxFem Konferentzia birtualak. Marxismoaren eta Feminismoaren uztartzeaz eztabaidatu da, Feminismo garaikidearen analisiak eta erronka berriak mahaigaineratu dira eta mugimendu anitzek sareak ehuntzeko elkarretaratzea ere izan da. Latinoamerika, Estatu Batuak, Asia, Ekialde Hurbila zein Europa hegoaldeko hizlariak bertaratu dira, besteak beste.



AZAROAK 25

BIOLENTZIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

Euskal Herriko Mugimendu Feministak deituta, milaka pertsona atera dira kaleetara emakumeen* aurkako biolentzia matxista salatzekeo. Euskal Herri feminista, antikapitalista eta antiarrazista eraikitze bidean, instituzio konprometituak, eta ez deklarazio instituzional hutsak, behar ditugula azpimarratu dute.

URTARRILAK 12

BIOLENTZIA MATXISTARIK EZ

Emakumeen Mundu Martxak deituta, Tuteran senarrak hil duen Sara Pinaren erailketa salatzekeo mobilizazioak egin dituzte Euskal Herriko hiriburu eta hainbat herritan.

URTARRILAK 28

ERASO MATXISTARIK EZ

Sopelako emakume langile baten bortxaketa salatzekeo elkarretaratzea egin du mugimendu feministak. Bestetik, LAB sindikatuak deituta pikete feminista egin dute Bilboko Lan Ikuskaritzaren aurrean.

OTSAILAK 10

SISTEMA KOLAPSOAN

Euskal Herriko Neska* Gazteak kolektiboak Donostiako sarrera blokeatu dute, alde guztietatik kolapsatzen ari den eta bizitzen ari garen sistema irudikatzekeo. Sistema heteropatriarkal kapitalista horren aurrean antolakuntzarako eta eraldaketarako apustua egin dute.



OTSAILAK 10

ERASO MATXISTARIK EZ

Bilboko metroko garbiketa zerbitzuko emakume langile baten aurkako eraso matxista salatzekeo, Sestaon mugimendu feministak (Emari)

elkarretaratzea burutu du. Bestetik, LABek deituta pikete feminista egin dute Portugaletetik Sestaora arteko metroan.



Ekologia

ABENDUAK 11

AHTRIK EZ

Orain Ardura ekimenak deituta, ehunka lagunek Iruñeko kaleak zeharkatu dituzte, Nafarroan Abiadura Handiko Trenaren lanak berehala eta behin betiko gelditu dituzten eta azpiegitura horretara bideratutako Europako funtsak herritarren bizi-baldintza duinak bermatzera bideratu dezaten eskatzekeo.

Presoak eta iheslariak

AZAROAK 13

IZADI GURASOEKIN ETXERA

Maria Lizarraga eta Iñigo Gutierrez presoek alaba datorren urtarrilaren 21ean gurasoengandik banatuko dute, 3 urte beteko dituelako. Umearen eskubideak bermatzeko eta gurasoengandik banatu ez dezaten, Burlatan deitu dute mobilizaziora. Kalejira animatu baten ondoren, ekitaldia burutu dute Kultur Etxean. Horrez gain, Geroa Bai, EH Bildu, Podemos eta I-E talde parlamentarioek Izadi bere gurasoekin egon ahal izateko iniziatiba bat sustatu dute.

AZAROAK 18

GITA ETXERA

Durangoko Sarek elkarretaratzea egin du Gregorio Vicario "Gita"ren egoeraren aurrean irtenbide bat aldarrikatzeko. Izan ere, bihotzeko

arazoak direla eta, preso politiko durangarrari Leongo ospitalean urgentziazko ebakuntza egin behar izan diote, by-pass koronarioa jartzeko. Espetxe-administrazioari eskatu diote berehalako irtenbide humanitarioak har ditzala, "Gita" baldintzapeko askatasunean edo espetxe arinduan jartzeko.



AZAROAK 22 GITA ETXERA

Sarek eta Etxeratek egindako agerrialdian, Gregorio Vicariorentzat hirugarren gradua eta baldintzapeko askatasuna eskatu dute, duen gaitza duintasunez eta bermez tratatu ahal izateko.

AZAROAK 30 ONGI ETORRIAK

EPPK-k egindako iragarpenak, zeinak ateratzen diren presoek harrera diskretu eta pribatua egiteko eskatzen duen, erreakzio soka luzea ekarri du. Positiboki eta elkarbizitzarako ekarpen gisa baloratu dute hainbat eragilek eta pertsonak, hala nola, Sortuk, EH Bilduk, Foro Sozialak, Bake Bideak, Etxeratek, Pablo Iglesiasek edo Maria Jauregik. Ñabardurak ñabardura, balorazio positiboa egin dute ere EAJk, PSEK eta Elkarrekin-Podemosen.

ABENDUAK 3 EPPK ETA FORO SOZIALA

EPPKren ordezkariak eta Foro Sozialarenak bilera berri bat egin dute. Bertan ongi etorrien inguruko adierazpenaren balorazio positiboa egin dute bi aldeek. Horrez gain, presoek ordezkariak kezka agertu dute, bai presoek bai kartzelatik atera diren beste pertsona batzuei eragiten dieten sumario berriak irekitzeko dagoen bultzada judizialatik.

ABENDUAK 8 DISPERTSIOAK ERAGINDAKO ISTRIPUA

Pedro Mari Cano euskal preso politiko hernaniarraren senideek kotxe istripua jasan dute Logroñoko espetxetik etxerako bueltan.

ABENDUAK 9 ESPETXE POLITIKA BERRIAREN ERRONKAK

Sarek antolatutako hitzaldi batean Garbiñe Biurrun EAEko Auzitegi Nagusiko magistratua, Jose Antonio Martin Pallin Espainiako Auzitegi Goreneko magistratu emeritua eta Jaime Tapia Eusko Jaurlaritzako Espetxe Erakundeetako aholkularia aritu dira bide penitentiarioan dauden oztopoez eta erronkez hausnartzen. Hirurak Zigor Kodearen atalik makurrenak indargabetzearen alde eta praktika humanistagoa eta progresistagoa aplikatzearen alde agertu ziren.

ABENDUAK 10 GIZA ESKUBIDEEN EGUNA

Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira, Etxerat elkarteak deituta, euskal preso politikoen senide eta lagunek zapiekin elkarlotutako giza kateak osatu dituzte Gasteizen eta Iruñean, oraindik ere jasaten dituzten eskubide urraketa guztiez nazkatuta daudela adierazteko.



ABENDUAK 16 BAKEGILEAK

Luhusoko atxiloketetatik bost urte bete direnean, ekimen sinbolikoa egin dute bakegileek Baionako Suprefeturaren aurrean. Hareazko erloju bat irudikatuz, hondarra bota dute iragan den denboraz ohartarazi eta Gobernu frantsesak pausu txikiak baina ez adinekoak eman dituela salatzen.

ABENDUAK 17 SINDIKATUAK BIDEAN

ELA, LAB, UGT, ESK, Steilas, CGT/LKN, CNT, EHNE, Hiru eta Etxalde sindikatuek elkarretaratzeak egin dituzte Bilbon eta Donostian. Aurrerapausoak eman diren arren, salbuespen legediak bere horretan segitzen duela salatzen dute. Horrekin batera, urtarrilaren 8ko manifestazioan parte hartzea deialdia zabaltzen dute.

ABENDUAK 18 ETXERAKO BIDEAN

Sarek Gabonen atariko mobilizazioa egin du Basauriko espetxeraino. Euskal presoek aplikatzen zaien salbuespen legedia bertan behar utz dezaten exijitu dute parte hartu duten ehunka lagunek. Euskal preso guztien etxeratzea eta gradu progresioa ahalbidetzeko eskatzeaz gain, larriki gaixorik dauden eskubideak bermatzea ere eskatu dute. Gogoan izan dute hil berri den Antton Troitiño, bere heriotza preso gaixoei jartzen zaizkien oztopoen adibide argia delako.

ABENDUAK 18 JAKES ETXERA

Mobilizazioa egin dute Donibane Lohizunen Jakes Esnalen urtebetetze egunean. Espetxean 31 urte bete dute dituela salatzen eta bere etxeratzea galdegin dute.

ABENDUAK 20 AZKENA IZAN DADILA

Antton Troitiño Arranz preso ohiaren heriotza salatzen, Sarek mobilizazioak deitu dituzten hilaren 19an, Intxaurren elkarretaratzea, eta 20an, Bulebarretik manifestazioa. Antton heriotzara eraman duen politika salatzeaz gain, gaixorik diren preso guztien etxeratzea eskatu dute.



ABENDUAK 26**ETXERAKO BIDEAN**

Sarek bizikleta eta oinezko martxak egin ditu Donostian eta Gasteizen euskal presoek pairatzen duten salbuespen politikaren amaiera eskatzeko.

ABENDUAK 31**ETXERAKO BIDEAN**

Azken ostiralarekin batera manifestazioak egin dira ehunka txokotan euskal presoek eskubideak defendatu eta ezartzen dieten salbuespeneko politika salatzen. Urteko azken eguna izanda, 2022a denak etxerako bidean jarriko dituen urtea izan dadila eskatu dute.

URTARRILAK 8**BIDEAN**

Osasun egoerak behartuta urteroko Bilboko hitzordua bertan behera gelditu da, eta deialdia herrietara zabaldu da. Sareren deialdiari erantzunez, 200 bat herritan milaka eta milaka lagun atera dira kalera Euskal Herri osoan urrunketaren eta euskal presoek ezartzen dizkieten gainerako salbuespen neurrien bukaera exijitzeko. Baionan, “Le temps presse. Jon, Jakes eta Unai gurekin” lelopean mobilizazio jendetsua burutu dute Bakegileek eta Bake Bideak deituta, eta fase berri bat abiaraztea dutela helburu gogoratu dute deitzaileek.

**URTARRILAK 14****IRATXE ETXERA**

Iratxe Sorzabal Diazen aldi baterako espainiaratzea salatu dute Irunen egindako elkarretaratzean. Bidasoaldeko Iratxeren Lagunak ekimenak salatu du Sorzabalen kontra egingo den epaiketak duela 20 urte baino gehiago Guardia Zibilaren torturapean egindako

deklarazioak dituela oinarri eta Audientzia Nazionala justizian baino mendekuan oinarritzen dela.

URTARRILAK 14**IZADI GURASOekin ETXERA**

ELA, LAB, Steilas eta ESK sindikatuetako ordezkariak elkarretaratzea egin dute Iruñean, kartzelan jaio eta hiru urte betetzear dagoen Izadi haurra espetxean jarraitzen duten gurasoengandik ez aldentzeko eskatzeko.

URTARRILAK 23**RAMADA ETXERA**

Francisco Jose Ramada Irungo preso politikoa, bihotzeko arazo baten ostean, Donostiako ospitale-eraman behar izan dute. Sarek elkarretaratzeak egin ditu Irungo epaitegian eta ospitalearen aurrean bere askatasuna eskatzeko.

URTARRILAK 28**AZKEN OSTIRALA**

Sarek eta Etxerateg mobilizazioak burutu dituzte hileko azken ostira-lean. Elkarretaratzeetan Covidaren aitzakiarekin kartzelatan presoek murrizten ari zaizkien eskubideak eta bizi-baldintzen okertzea salatu dute.

OTSAILAK 6**KARTZELAK HUSTEKO GARAIA**

Iratxe Sorzabal preso politikoa Audientzia Nazionalako epaiketaren bezperan, nazioarteko zortzi ordezkariak “Bakearen, adiskidetzaren eta justizia trantsizionalaren garaia da, ez mendeku eta zigorraren garaia” izeneko manifestu bat plazaratu dute. Bertan torturak salatzeaz gain, botere judiziala egungo testuinguruari egokitu dadila eskatu dute. Bestaldetik, ehunka lagunek manifestazioa egin dute Irunen.

**OTSAILAK 12****SALBUESPEN NEURRIEI STOP**

Jon Cresporen gradu erregresioa salatzen manifestazioa burutu du Sarek Galdakaon. Entzutegi Nazionalako fiskaltzaren jarrerak bizikidetzarako bidea oztopatzen duela gaitzetsi dute.

Askatasun demokratikoak**AZAROAK 8****ZIGOR BAT GEHIAGO**

Oier Oa euskal preso ohiari Frantziar Estatuan bizitzeko ezarria nahi zaion lurralde debekua aztergai izan zuen egindako auzian. Hori salatzen Bernat Etxepareko ikasleek korrika egin zuten Hiriburutik Baionara. Bestaldetik, “Zigor bat gehiago” dokumentala, Oier Oari buruzko eta lurralde debekuari buruzko film-dokumentala ikusgai dago jadanik.

**AZAROAK 12****EHUN LEGELARIREN MANIFESTUA**

Zuzenbide arloko ehun adituk baino gehiagok 13/13 auziko prozesuan atzemandako irregulartasunak gaitzetsi dituzte. Manifestu batean gogor deitoratu dituzte Jose Perals fiskalak ETari buruz esandakoak, bai eta auzipetuei egindako eskubide urraketak ere.

ABENDUAK 21**MENDEKUAAREN AURREAN, ELKARTASUNA**

Auzitegi Nazionalaren aginduz Donostian bideokonferentziaz deklaratu behar izan du Mikel Albisu preso ohiak. Izan ere, 1995eko Gregorio Ordoñezen aurkako ekintzan inplikatu nahi izan dute preso ohi donostiarra. Kanpoaldean elkarretaratzea eginez, elkartasuna

eta babesa adierazi diote herritar eta lagun talde batek.

URTARRILAK 13

15 HILEKO KARTZELA ZIGORRA

Iruñerriako Mugimendu Feministak elkarretaratzea egin du nafar Parlamentuaren aurrean, iragan Martxoaren 8ko mobilizazioetan atxilotutako emakumearentzat 15 hilabeteko espetxe zigorra eskatu baitu fiskalak.

URTARRILAK 18

EMAN BAKEA

Mikel Albisuren auziperatzea salatzekeo 126 idazlek eta editorek Eman Bakea izeneko adierazpena plazaratu dute. Inolako froga materialik gabe eta Frantzia bete duen zigorraren arrazoi berdintsuengatik, Espainian berriro ere zigortu nahi dutela salatu dute.



URTARRILAK 23

AROTEGIKO AUZIA

Elkarretaratzea egin dute Lekarozen Aroztegiako proiektua gelditzeagatik deklaratzera deitu dituzten sei herritarrei babesa erakusteko. Salatu dute onartezina dela baliabide publikoak herritarren borondatea defendatzeko erabili beharrean lurra eta ingurua xehatzen ari direnen beharretara erabiltzea.

Memoria

AZAROAK 20

SANTI ETA JOSU GOGOAN

